



BERTSOLARITZA
BERTSOLARITZA


09

Joxerra Garzia

BASQUE.



**ETXEPARE
EUSKAL
INSTITUTUA**



BERTSOLARITZA
BERTSOLARITZA

Joxerra Garzia

BASQUE.

1
Euskara
The Basque Language

2
Literatura
Literature

3
Musika klasikoa
Classical Music

4
Euskal kantagintza: pop, rock, folk
Basque Songwriting: pop, rock, folk

5
Artea
Art

6
Zinema
Cinema

7
Arkitektura eta diseinua
Architecture and Design

8
Euskal dantza
Basque Dance

9
Bertsolaritza
Bertsolaritza

10
Tradizioak
Traditions

11
Sukaldaritza
Cuisine

12
Antzerkia
Theatre

Etxepare Euskal Institutuak sortutako bilduma honek hamabi kultura-adierazpide bildu ditu. Guztiak kate bakarraren katebegiak dira, hizkuntza berak, lurralde komunak eta denbora-mugarri berberak zeharkatzen dituztelako. Kulturaren eskutik, euskararen lurraldean tradizioa eta abangoardia nola uztartu diren jasoko duzu. Kulturaren leihotik, bertakoaren eta kanpokoaren topalekua erakutsiko dizugu. Kulturaren taupadatik, nondik gatozen, non gauden eta nora goazen jakiteko aukera izango duzu. Liburu sorta hau abiapuntu bat da, zugar jakin-mina eragin eta euskal kultura sakonago ezagutzeko gogoia piztea du helburu.

This collection created by the Etxepare Basque Institute brings together twelve cultural disciplines, all of them intertwined as they share language, land and history. Hand in hand with our culture, we invite you to witness the fusion of tradition and innovation, the melding of local and foreign. In short, we invite you to learn where we come from, where we are now and where we're heading. This set of books is a launchpad intended to spark your curiosity.

BERTSOLARITZA

BERTSOLARITZA

Joxerra Garzia

10	Hitzaurrea	Prologue
12	Gaur egungo bertsolaritzaren gorakada	The Strength of Contemporary 'Bertsolaritza'
16	Bertsozale Elkarte	The Association of the Friends of 'Bertsolaritza'
18	Bertsolaritza artearen agerpenak	Demonstrations of the Art of 'Bertsolaritza'
26	Bertsolari ofizioa	The 'Bertsolari' Profession
32	Bertsolaritzaren historia laburra	A Brief History of 'Bertsolaritza'
38	Bazterreko bertsolaritzatik lehenbiziko txapelketetara	From Marginal 'Bertsolaritza' to the First Championships
80	Bertsolaritza informazioaren gizartean	'Bertsolaritza' in the Information Society
82	Amaiera-oharrak	Endnotes
90	Eranskinak	Annexes
92	Bibliografia	Bibliography



Nola lortu du Mendebaleko Europako berezko hizkuntzen artean indoeuroparra ez den bakarrak bere lekua hartzea XXI. mendean? Zertan datza euskal kultura gaur egun eta zertan bereizten da besteengandik? Zer presentzia merezi du nazioartean?

Liburu hauen bidez, Etxepare Euskal Institutuak erantzun batzuk proposatu nahi ditu, beste kultura eta identitate batzuei eskua luzatzeko asmoz. Elkar ezagutzea baita elkar estimatzeko eta ulertzeko modu bakarra. Ongi etorri.

How has the only indigenous language of Western Europe that is not of Indo-European origin achieved its own place in the 21st century? What is Basque culture and what sets it apart from others? What international presence does it deserve?

Through the books that make up this collection, the Etxepare Basque Institute would like to offer a series of responses to reach out to other cultures and identities. The better we know each other, the more we appreciate each other. Ongi etorri.

Hitzaurrea

Liburu honen helburu nagusia bertsolaritza zertan datzan ulertu ahal izateko argibideak eskaintzea da. Lehenengo eta behin, bertsolaritzak gaur egun bizi duen egoera bere konplexutasun guztian azaltzen saiatuko gara. Behin fenomeno honen egoera aurkeztu ondoren, bertsolaritzaren historia aztertuko dugu hasi, bere hastapen ilunetatik eta gaur egunera arte, ahozko tradizio honen bizitza luze eta arrakastatsuko protagonista nagusietako batzuen bitartez.

Kontuan hartuta, zorionez, gaur egun oso erraz lor daitekeela bertsolaritzari buruzko nahi den informazio guztia, egokiago iritzi diogu, liburu honetan informazio hori pilatzen jardun gabe, berorren interpretazio zuzenerako giltzak eskaintzeari. Obra honetan zehar kasu jakin bakoitzaren gaineko informazio gehigarria aurkitzeko erreferentziak ematen dira.

Aurrera jarraitu baino lehen, bertsolari, bertso eta bertsolaritza kontzeptuak argitzea eta zehaztea komeni da.

Nor da bertsolari? Gaur egun, bertsolaritzat hartzen da entzuleria baten aurrean bertsoak bat-batean asmatzeko gaitasuna daukana, eta ez beste inor. Beraz, bertsopaperak idazten dituenari, edo aurretiaz sortu eta buruz ikasiriko bertsoak abesten dituenari ez zaie aitortzen bertsolari estatusa, bertso horiek kalitaterik handienekoak badira ere.

Zer da bertsoa? Bertsoa, erdarazko *verso* edo *verse* ez bezala, estrofa osoa da, eta ez estrofa horretako lerro bakoitza.

Bertsolaritza hitzak adieraz dezake bertsoak bat-batean asmatzeko artea edo gaitasuna (bertsogintza), edota aipatu fenomenoaren inguruan sortu den mugimendu soziala.

Eman ditugun argibide hauek zehaztapen terminologikoak baizik ez dira eta daukaten helburu bakarra gaizki ulertuak saihestea da. Oinarrizko kontzeptu horien eta beste batzuen definizioa, eta horrekin batera, bertsolaritzaren errealitate konplexua, orrialde hauetan zehar argituz joango gara. Horixe da, behintzat, egileak espero duena.

Prologue

The principal goal of this book is to present the necessary means for fully understanding *bertsolaritza*.

Initially, I will attempt a detailed description of the current reality of *bertsolaritza* in all its complexity. Once the current reality of the phenomenon has been addressed, I will trace the history of *bertsolaritza* from its obscure origins to the present, by means of its main protagonists in the long and successful history of this oral tradition.

Given that luckily information on *bertsolaritza* is today plentiful and easily accessible, I have tried to avoid merely accumulating facts, in the firm belief that the best contribution this work can make is to offer the necessary means for interpreting that information. I have added clear references throughout the work where in each case one can access further information.

Before continuing, it is worth clarifying and explaining precisely the concepts of *bertsolari*, *bertso* and *bertsolaritza*.

Who is a *bertsolari*? Today a *bertsolari* is only considered to be someone capable of improvising *bertsos* in front of an audience. Anyone who writes *bertsos*, or sings previously created and memorised *bertsos*, is not accorded the *bertsolari* status, however extraordinary the quality of their *bertsos* might be.

What is a *bertso*? A *bertso*, unlike a *verso* or *verse*, is not a line in a stanza, but rather the whole stanza itself.

Bertsolaritza can designate both the art of improvising verses (*bertsogintza*) and the social movement created around it (*bertsolaritza*).

One should take these initial indications for what they are: mere terminological definitions whose goal is only to avoid misunderstandings. The definition of these and other basic concepts, and with this the complex reality of *bertsolaritza*, will be demonstrated throughout these pages. At least, that is the author's hope.

Gaur egungo bertsolaritzaren gorakada

1. 2017ko Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusiaren finala. Bilbao Exhibition Centre (BEC), Barakaldo.

Nahitaezko soldadutzaren aurrean intsumiso deklaratzegatik ezarri zioten epaiketan, Jon Sarasuak, epailearen galderari erantzunez, bertsolari ofizioa zertan zetzan azaldu behar izan zuen. Epaian jasoa geratu denez, Jon Sarasuaren adierazpenetatik epaileak zera ulertu zuen, bertsolariak zirela «una especie de juglares sabelotodo»; halere, definizio horri zuzenketa batzuk egin beharra dago.

Hasteko, bertsolariaren profila hurbilago legoke trobadoretik eta ez juglairetik, bertsolariak ez baititu abesten beste norbaitek (edo berak aurretiaz) moldaturiko koplak; aitzitik, inprobisatu egiten ditu, abestu ahala, bere bertsoak. Dena dela, eta alderdi hau aurrekoa baino askoz ere garrantzitsuagoa da, gaur egungo bertsolariak juglare edo trobadore gisa definitzeak okerreko iritzi bati eman liezaioke bide, hots, antzinako fenomeno bat dela, arrazoi misterioetsuren batengatik, duela hainbat mende praktikatzen zen bezalaxe gure egunetara arte iraun duena. Hor, beraz, erlikia batez ariko ginatke, gauza miresgarri bezain alferreko batez, lehenbiziko asmakari aeronautikoak edo XIX. mendeko idazmakinak bezala.



The Strength of Contemporary 'Bertsolaritza'

1. 2017 National Bertsolari Championship Final of the Basque Country. Bilbao Exhibition Centre (BEC), Bilbao (Biscay).

In the trial which he was subjected to for refusing to do compulsory military service, the *bertsolari* Jon Sarasua had to explain, at the request of the judge, what exactly the profession of *bertsolari* was. According to court records, the judge deduced from Sarasua's declarations that *bertsolaris* must be "kinds of know-all minstrels", a definition one should clarify in certain aspects.

In the first instance, the profile of *bertsolaris* would resemble more that of troubadours than minstrels, given that they do not sing things composed by other people (or by themselves previously), but instead they create and sing *bertsos* as they go along, in a pure form of improvisation. In any event, and this is much more important, defining contemporary *bertsolaris* as minstrels or troubadours might lead us to think of this an old-fashioned phenomenon that, for some mysterious reason, has survived down to the present in the same way it was practiced centuries ago. If this were the case, we would thus be speaking about a relic, an object as admirable as it was impractical, like the first aeronautical models or typewriters of the nineteenth century.

However, nothing could be further from the truth. Improvised *bertsolaritza* is today a powerful and highly prestigious reality in those geographic areas where Euskara continues to exist. Indeed, the strength and importance of *bertsolaritza* in the Basque-speaking community is clearly reflected in several sociological studies.¹

Another way of demonstrating the vitality of *bertsolaritza* is to observe one of its largest expressions: the national *bertsolari* championship final, a competition held every four years. In 2005 the final was held in Biscay, and specifically in the BEC (Bilbao Exhibition Centre). It was the first time the final had been held outside the most Basque-speaking province, Gipuzkoa, which was a major challenge for the organisers.

The result was spectacular. Approximately 15,000 people attended the event (with many others following it on the radio and television). And it was a similar story during the 2009 edition and in the following editions, which were also full to the brim and held in the same venue.²

In this image-driven society, with an ever dizzying rhythm of life, shorter attention-spans and fleeting messages, it is not easy to explain why 15,000 people are happy to spend over six hours (divided up between morning and afternoon sessions, with a break for lunch) attending an event which is, in essence, the antithesis of the pop video; *bertsolaris* sing a cappella, standing solemnly and taking refuge behind microphones; the stage design is reduced to a minimum, and the rhythm of the event defines the content of the *bertsos*.

In order to weigh up these facts, it is worth remembering that the potential audience for an event like this is limited, for obvious reasons, to the Basque-speaking population, which is, according to the most reliable sources, a community of just over 750,000 people³ (this figure might rise a little if people who, although they cannot speak Euskara, do understand it, are taken into account, but it would still never reach the million mark).

Ezer ez egiatik urrunago. Bertsolaritza gaur egun errealitate sendo eta onarpen sozial handikoa da euskarak bizirik dirauen eremu geografikoetan. Bertsolaritzak gizarte euskaldunetan daukan sasoi bete hori argi eta garbi islatzen da egin diren azterketa soziologikoetan¹. Edo, bestela, bertsolaritzaren bizitasuna egiaztatu nahi duenak, ez dauka bere agerpen masiboenetako batean erreparatu besterik: Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finala, lau urtean behin egiten den lehiaketa. 2005ean final hori Bizkaian egin zen, zehazkiago BECen (Bilbao Exhibition Centre). Finala, euskaldun dentsitate kopuru handiena daukan probintzian, Gipuzkoan, egiten ez zen lehenbiziko aldia zen, benetako erronka, alegia. Emaizta gogoangarria izan zen. 15.000 lagun izan ziren lehiaketaren lekuko (eta beste hainbatek irrati eta telebista bidez ekitaldi guztia jarraitu zuten). Beste horrenbeste gertatu zen 2009ko edizioan, eta ondorengoetan, betiere erabateko betealdiak izan baitira agertoki horretan bertan².

Irudiaren gizarte honetan, erritmoak gero eta zorabiagarriagoak, arreta guztiz lehiatua eta mezuak gero eta laburragoak diren honetan, nekez ulertzen da nola den posible 15.000 lagun sei ordu baino gehiagoan egotea (goiz eta arratsaldeko saioetan, tartean bazkaltzeko etenaldi batekin) funtsean bideokliparen antitesia den emanaldi bat atseginez entzuten: bertsolariek *a capella* abesten dute, zutik, jarrera hieratikoa mikroen atzean parapetaturik, hutsaren hurrengo eszenografiarekin, eta emanaldiaren erritmoa bertsoen edukiak markatzen duela.


Datu hauek daukaten garrantziaz jabetzeko, gogorarazi beharra dago mota honetako ekitaldi batek erakar dezakeen publiko bakarra, esan beharrik ere ez dago, populazio euskalduna dela, eta iturri fidagarrienen arabera, komunitate hori 750 bat mila lagunek osatzen dugula³ (kopuru hori zertxobait gehitu daiteke, euskaraz mintzatzeko gai izan gabe ere, ulertu egiten duen jendea barne hartzen bada baina inolaz ere ez da milioira iristen).

Bertsolaritzak gaur egungo euskal gizartean daukan garrantzia ez da kasualitatearen emaitza; aitzitik, neurri handi batean behintzat, 1980ko hamarkadaren azken urteetatik aurrera berrikuntzaren alde egin zen apustuari zor zaio, bertsolari, bertsozale eta antolatzaile belaunaldi batek landutako estrategia soziokulturalaren barruan kokatzen den apustua, beren gidaritzapean hartu dutelarik bertsolaritza kolektibo gisa, Bertsozale Elkartearen inguruan antolatuz.

2. 2009ko Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusiaren finala. BEC, Barakaldo.

2. 2009 National Bertsolari Championship Final of the Basque Country. BEC, Bilbao (Biscay).

The importance of *bertsolaritza* in contemporary Basque society is not just the product of chance, but instead is the result, in many ways, of a commitment to overhaul the phenomenon from the late 1980s onwards; a commitment framed in a sociocultural strategy deployed by a generation of *bertsolaris*, enthusiasts and organisers who have taken the helm of *bertsolaritza* as a collective, organising themselves around the Bertsozale Elkarte (Association of the Friends of *Bertsolaritza*).



Bertsozale Elkartea

Bertsozale Elkartek, gaur egun milatik gora bazkide dauzka, horien artean ia bertsolari guztiak. 1987an sortu zen, *Bertsolari Elkartea* izenarekin eta bere lehenbiziko eginkizuna bertsolarien txapelketa antolatzea izan zen, ordura arte Euskaltzaindiak egiten zuena. 1995ean, birfundatze bat gertatu zen, besteak beste, izena aldatuz, eta harrezkero etengabe ari da hazten eta erantzukizun berriak bere gain hartzen.

2008az gero, Mintzola Fundazioan barne hartua, Elkartek gestionatzen du Ahozkotasanaren Xenpelar Dokumentazio Zentroa; bertsolaritza eta ahozkotasanari buruzko ikerketa antolatu, koordinatu eta sustatu du, eta beste hainbat materialen artean, urtero, bat-bateko bertso onenen antologia argitaratu du; bertsolaritza artearen transmisio mugimendua koordinatu du, bai bertso-eskoletan eta bai Hezkuntza arautuan; Euskal Telebistako *Hitzetik Hortzera* bertsolaritzari buruzko asteroko programa ekoizten eta koordinatu du; Lanku enpresa elkartuaren bitartez, bertso-saioetarako bertsolarien kontratazioa gestionatu du... Gainera, Elkartek presentzia aktiboa dauka Euskal Herriko bizitza sozial eta kulturalerako beste hainbat arlotan ere. Horrez gain, betiere harremanean dihardu ahozkotasanarekin zerikusirik daukaten nazioarteko elkarte eta erakunde guztiekin. Lan horren emaitzak dira, besteak beste, 2003ko maiatzaren 16 eta 17an Renon egin zen mintegia, bertan Jon Sarasuak, Andoni Egañak eta Joxerra Garziak bertsolaritzari buruzko beren liburuan⁴ aurkeztu zituzten ideiak kontrastatu ahal izan zituztelarik ahozkotasaneko aditu amerikarrek; edo, Donostian, 2003ko azaroaren lehen astean egin zen Ahozko Inprobisazioari buruzko Kultura arteko Lehenbiziko Topaketa. Harreman horien ondorio da *Oral Tradition* aldizkari prestigiotsuak, John Foley-ren⁵ zuzendaritzapean 2007an bertsolaritzari buruz plazaratu zuen ale monografikoa. 2016an inprobisazio abestuko bigarren nazioarteko topaketa antolatu zen Donostian, hiri hori (Wroclaw poloniar hiriarekin batera) kulturako europar hiriburu izendatua izanaren kariatz antolaturiko ekitaldien artean.

Elkartek berak webgune bikain bat dauka (lau hizkuntzatan kontsulta daitekeena: euskara, gaztelania, frantsesa eta ingelesa)⁶. Bisitariak bertan aurkituko ditu, besteak beste, honako baliabide eta zerbitzuak: bertsolaritzaren jarduerari buruzko agenda zehatza, hainbat ekitaldiren bideoak, bertsolarien eta bertsolaritzarekin loturiko beste zenbait agenteren biografiak, inprobisazioaren hainbat alderdiri buruzko azterketak, argitalpenen katalogoa, biblioteca birtuala, bertsolaritzari buruzko datu-basea, edo bertsolariak erabili ohi dituzten ia 3.000 doinuak entzuteko aukera.

The Association of the Friends of 'Bertsolaritza'

Bertsozale Elkartea, the Association of the Friends of *Bertsolaritza*, has at present over a thousand members, including almost all the *bertsolari*s. Created in 1987 under the name Bertsolari Elkartea (Bertsolari Association), its first task was to take charge of the *bertsolari* championship which had until then been organised by The Royal Academy of the Basque Language – Euskaltzaindia. In 1995, it was re-founded and even changed its name and since then, it has grown steadily and taken on new functions.

Integrated since 2008 into the Mintzola Foundation (the orality factory), the Association runs the Xenpelar Orality Documentation Centre; it organises, coordinates and promotes research into *bertsolaritza* and orality, publishing (amongst a lot of other material) an annual anthology of the best improvised *bertsos*; it coordinates the movement which focuses on transmitting the art of *bertsolaritza* both in the *Bertso-Eskolak* (school-workshops of *bertsolaritza*) and the statutory education system; it produces and coordinates the weekly television programme on *bertsolaritza* by Euskal Telebista (the Basque public television station), *Hitzetik Hortzera*; and it manages, via an associate company Lanku, the contracting of *bertsolari*s for various performances. Elsewhere, the Association is active in many other spheres of Basque social and cultural life. Nor does it neglect international relations and exchange with all those organisations and bodies that have something to do with orality. Results of these efforts include, for example, the seminar held in Reno in the United States, 16-17 May, 2003, in which Jon Sarasua, Andoni Egaña and Joxerra Garzia compared the ideas expressed in their book on *bertsolaritza*⁴ with American oral experts; and the First Intercultural Meeting on Oral Improvisation, held in San Sebastian during the first week of November 2003. These contacts led to a special edition of the prestigious journal, *Oral Tradition*, edited by John Foley,⁵ being dedicated to *bertsolaritza* in 2007. In 2016, a second international meeting about sung improvisation was held as part of the events organised within the context of the European capital of culture, which that year fell to San Sebastian (sharing the title with the Polish city of Wroclaw).

The Association itself has an excellent Website (which can be consulted in four languages: Euskara, Spanish, French and English), in which the visitor will find, amongst many other things, the following resources and services: an ample agenda on *bertsolaritza* activities, videos of different performances, biographies of *bertsolari*s and other agents involved in *bertsolaritza*, studies on various aspects of improvisation, a catalogue of publications, a virtual library, a database on *bertsolaritza*, and a chance to access the almost three thousand melodies used by *bertsolari*s.



3. Presentetation team for the ETB television programme *Hitzetik Hortzera* and the *Bertsoa.eus* website. Amasa-Villabona (Gipuzkoa), 2018.

Bertsolaritza artearen agerpenak

3. *Hitzetik Hortzera* telebista saioko (ETB) eta *bertsoa.eus* atariko hedapen-taldea. Amasa-Villabona, 2018.

Alegia ezagun batean, hiru itsuk, bakoitzak bere aldetik, elefantea zer eta nolakoa den jakin nahi dute. Lehenbizikoak, animaliarene hanka bat haztatu ondoren, dio elefantea zutabearen antzeko zera bat dela; bigarrenak, animaliarene tronpa haztatu du eta dio elefantea zutabea bezalakoa ez, baizik soka lodi-lodi bat bezalakoa dela; eta hirugarrenak, animaliarene belarri bat haztatzea egokitu baitzaio, ondorioztatu du elefantea ez dela ez zutabea bezalakoa eta ez soka bezalakoa, alfombra zimur baten antzeko zera bat baizik.

Hazta daitekeen objektu bat hain era desberdin eta are kontrajarritan deskribatzen bada, aztertzailearen ikus- (edo hazta-) puntuaren arabera, ez da harrizkoa izango antzeko zerbait gertatzea bertsolaritza bezalako errealitate soziokultural konplexu baten definizioa ematerakoan.

Azalpen honetan, bertsolaritza genero, arte edo ofizio gisa aztertuko dugu batez ere⁶. Dena dela, hemen deskribatzen dugun errealitateak hain nabarmenak ez diren oinarriak dauzka, ezinbestekoak halere bertsolaritzaren biziraupenerako. Gaur egungo bertsolaritza mantentzen, elikatzen eta berritzen duten oinarri nagusiak honako hauek dira: bertso-eskolak deritzen ikastegi-tailerrak; bertsolaritzaren irakaskuntza eskola arautuan; eta fenomeno honen presentzia medioetan, idatzietan zein ikus-entzunezkoetan eta Interneten.

Bertsolaritzaren beste alderdi hauek gehien eta ongien aztertu dituen Jon Sarasua⁷ izan da; beraz, haren lana gomendatuko diogu aipaturiko alderdi horiek sakonkiago aztertu nahi dituenari, izan ere, gu hemen bertsolaritza ikuskizun edo jarduera publiko gisa hartuta deskribatzen saiatuko gara.

Demonstrations of the Art of 'Bertsolaritza'

In a well-known fable, three blind men attempt, separately, to find out what an elephant is. Thus, the first one, who has just touched its leg, contends that the elephant is a column; the second, who touched the trunk, maintains that the elephant is a thick rope; and the third, who touched its ear, concludes that the elephant is neither one thing or the other, but instead a kind of coarse rug. If a palpable object can be described in such different and opposing ways according to the point of view (or touch) the observer adopts, this will be even more the case when it comes to a sociocultural reality as complex as *bertsolaritza*.

In this account I will focus above all on those aspects of *bertsolaritza* considered a genre, art or profession.⁶ However, the reality described here has less visible foundations, without which it would not be viable. The main foundations which sustain, nurture and revitalise contemporary *bertsolaritza* are the *bertsolaritza* school-workshops (*bertso-eskolak*); the teaching of *bertsolaritza* in the statutory education system; and the genre's media presence, both in written as well as audio-visual and Web form.

The most prolific and best researcher of these dimensions of *bertsolaritza* is Jon Sarasua,⁷ whose work I would recommend to anyone who wants to learn more about these aspects, given that here I will concentrate more on *bertsolaritza* activity itself, in other words on *bertsolaritza* as a performance or public activity.

Even by just considering this level, contemporary *bertsolaritza* takes shape in a great variety of ways, none of which exhausts in and of itself the reality of the phenomenon. The already mentioned national championships, for example, for all the importance they might have as a soundboard of the movement or even as a source of financial income, are just the most visible and eye-catching part of the broader *bertsolaritza* phenomenon.

The performance of *bertsolaris* (*bertso-saioa*, literally a *bertso* session) can take place in any large or small closed area, as well as in a theatre or a handball court or around a restaurant table, but also in public, in the pavilion of a square, or even from balcony to balcony.

Since the last decade of the twentieth century there have been over 1,500 annual performances. The most sought-out *bertsolaris* come from different generations, from those under twenty to those over seventy years of age. At the same time, women *bertsolaris* have constituted an increasingly stronger presence amongst the *bertsolaritza* elite in recent years; this, even before Maialen Lujanbio, the only woman taking part in that final, won the 2009 championship; the first woman in history to win the national championship.

Amongst those more than 1,500 performances, there are events of all kinds and formats. Here are some of the most typical formats:

'BERTSO' FESTIVAL OR RECITAL

This is a previously announced event in which, generally speaking, between four and eight *bertsolaris* take part. It is usually held in a closed area (a cinema, theatre, handball court, and so on), and it typically lasts between an hour and a half and two hours.

Alderdi hori bakarrik kontuan hartuta ere, gaur egungo bertsolaritzan agerpen aniztasun ugaria sumatzen da, eta horietako ezeinek, bakarka hartuta, ezin du fenomenoaren errealitate guztia azaldu. Aipatu ditugun Txapelketa Nagusiak, esate baterako, mugimenduaren oihartzun gisa, edo baliabide ekonomikoaren iturri gisa, eduki dezaketen garrantzi guztiarekin, ez dira bertsolaritza-fenomenoaren alderdi nabarmen eta ikusgarriena besterik.

Bertsolarien jarduera (bertso-saioa) egin daiteke areto itxi batean, zabala zein txikia, antzoki batean, pilotaleku batean, jatatxe bateko mahai baten inguruan, baina bai eta aire zabalean ere, plaza bateko kioskoan, edota kalean balkoitik balkoira.

XX. mendeko azken hamarkadaz gero, batez beste, urtean 1.500 bat bertso-saio antolatzen dira. Gehien eskatzen diren bertsolarien artean, belaunaldi guztietakoak daude, 20 urtetik beherakoak zein 70 urtetik gorakoak. Goren mailako bertsolaritzan emakumearen presentzia azken urte hauetan errotu den fenomeno dugu, Maialen Lujanbiok 2009ko Txapelketa Nagusia irabazi baino lehenagokoa. Edonola ere, Lujanbio final hartan parte hartu zuen emakume bakarra izan zen eta historia guztian txapela lortu duen lehenbiziko emakumea da. Urteko 1.500 bertso-ekitaldi horien artean, mota eta formatu askotakoak daude. Hona hemen ohikoenetako batzuk:

BERTSO-JAIALDI EDO ERREZITALAK

Aurretiaz iragarritako jardunaldia izaten da, eta bertan parte hartzen duten bertsolarien kopurua, ia beti, lautik zortzira bitartekoa. Areto itxietan egiten da (zine, antzoki, pilotaleku...), eta normalean ordubete eta erditik bi ordura iraun ohi dute bertso-saio hauek.

Mota honetako jardunaldietan, bertsolariekin batera, funtsezko beste pertsonaia bat agertzen da: gai-jartzailea (sarritan emakumea izan ohi dena); berau arduratzen da bertsolari bakoitzari dagozkion gaiak eta ariketak proposatzeaz, aurretiaz prestatua duen gidoi baten arabera.

Jardunaldi honetan zehar, bertsolariek hainbat bertsoaldi egiten dituzte, bikoteka, hirunaka zein bakarka. Gai-jartzaileari dagokio bertsoaldi bakoitzean zein bertsolarik jardun behar duten erabakitzea, zein izango den formatua, eta zer gairi buruz aritu behar duten. Asmatu beharreko bertsoen kopuru zehatza txapelketetan bakarrik ezartzen bada ere, mota honetako bertso-jaialdietan, normalena, bertsolari bakoitzak aldiko hiru bertso kantatzea izaten da. Gai-jartzaileak gaia formulatzen duenetik bertsolariak kantatzen hasi arte pasatzen duen denbora aldatu egiten da jardueraren seriotasunaren arabera. Txapelketetan minutu erditik gorako isilaldiak onartzen dira; hain formalak ez diren saioetan, ordea, guztiz desagokiak lirakeke horrenbesteko isilaldiak.

TXAPELKETAK ETA SARIKETAK

Bertso-jaialdien adierazpen berezietako bat bertsolari-txapelketak eta -sarietak dira; berauetan lehiakideek bertsotan jarduten dute epaimahai baten aurrean, zeinak bertso bakoitza ebaluatzen eta puntuatzen duen bertso baten amaieratik hurrengoaren hasierara dagoen tarte laburrean. Bana daitezkeen sarietatik aparte, irabazlearen bereizgarria betiere

4. Alaitz Rekondo gai-jartzailea eta Fredi Paia, Ane Labaka eta Sebastian Lizaso bertsolariak. Bertso Eguna 2015, Donostia.

4. The theme-presenter Alaitz Rekondo and the *bertsolaris* Fredi Paia, Ane Labaka and Sebastian Lizaso. Bertso Day 2015. San Sebastian (Gipuzkoa).

Together with the *bertsolaris*, there is a key figure in these kinds of performances: the theme-presenter, who proposes the topics and exercises the *bertsolaris* must address, according to a previously elaborated script.

Throughout the performance (*bertso-saioa*) the *bertsolaris* participate in different kinds of ways (*bertsoaldiak*), whether in pairs, in threes or alone. The theme-presenter decides which *bertsolaris* will participate in each way, what format this will follow, and what the topic will be on which the *bertsolaris* have to improvise. Although an exact number of *bertsos* to be improvised is only established in championships, it is customary in this kind of recital for each *bertsolari* to sing three *bertsos* each time they take the stage. The maximum amount of time a *bertsolari* has from the moment the theme-presenter explains the topic until she or he begins to sing varies according to how formal the performance is. In championships, for example, there can be up to half a minute's silence, which would be totally inappropriate in a less formal performance.

CONTESTS AND COMPETITIONS

One special expression of these recitals is the *bertsolari* contest or competition. Here, the improvisers compete before a jury which evaluates and scores each *bertso* in the brief moment of time that elapses between the end of one *bertso* and the beginning of the next. Regardless of whatever



txapela izaten da. Adierazi dugun bezala, bertsolari-lehiaketa guztietan garrantzitsuena Euskal Herriko Txapelketa Nagusia da, lau urtean behin egiten dena, baina hortik aparte probintzia bakoitzak egiten du bere txapelketa, eta badira lehiaketa formatua duten beste norgehiagoka batzuk ere (haur-mailakoak, eskolartekoak, herri-mailakoak eta eskualde-mailakoak, besteak beste)⁸.

Txapelketetan, jardueren diseinuaz eta garatu beharreko gaien formulazioaz talde espezializatu bat arduratzen da; ez da gai-jartzailearen eginkizuna, kasu hauetan aurkezpenak egitera mugatzen baita.

Ez da erraza bertsolari txapelketa nagusien historia osatzea, antolaketan, mailan eta oihartzunean alde handiak baitaude urte batzuetatik beste batzuetara. Bertsolaritzaren historia azaltzean, txapelketa batzuk sakonkiago aztertuko baditugu ere, laburpen gisa gaur egungo lau urteroko txapelketarekin homologa daitezkeen eta homologatu ohi diren txapelketetako bat irabazi duten bertsolarien zerrenda osatu dugu (ikus 1. Taula. Eranskinak, 90. or.).

BERTSO-SAIO LIBREAK

Gai-jartzailearekin eginiko bertso-jaialdiaren formatua nahiko berria da oraindik, eta segur aski txapelketetatik eratorria izango da. Badirudi bertso-saioen formatu zaharrena desafioa dela: bi bertsolarik orduak eta orduak jarduten zuten ika-mikan bietako bat besteari nagusitzen zitzaion arte.

Bertso-jaialdi eta errezitaletan ez bezala, saio libreetan bertsolariek erabakitzen dute zein formatu erabili eta zeri buruz aritu beren jardueran. Bertsolari kopurua jaialdietan baino txikiagoa izaten da (normalean 2 edo 3 baino ez). Ospatzen edo omentzen den gertaera zein pertsonari buruzko aipamenak nagusitzen dira, eta bertsolariek luzaroago jardun dezakete jorratzen den gai bakoitzaren gainean. Gai batetik besterako igarotzea pixkanaka egiten da.

Bi bertsolarien arteko eztabaida erako saioetan ere sumatzen da antzinako desafio formatuaren aztarna, baina, dena dela, hori badirudi ohikoagoa dela beste kultura batzuetako inprobisazioan (repentista kubatarrak edo rageifeiro galegoak, adibidez).

Dena dela, Maximiano Traperok oso ongi adierazi duenez, inprobisazioaren beste agerpen poetikoago horietatik bereiziz, bertsolaria gehiago zentratzen da alderdi argudiatzaile eta dialektikoan⁹.

BAZKAL-AFALONDOKO SAIOAK

Askotan, bertso-saioak bazkari edo afari baten ondoren izaten dira, eta horietarako normalean aurretiaz izena eman behar izaten da.

Bazkal-afalondoko bertso-saio hauetako batzuetan ere izaten da gai-jartzailea; horrelakoetan, beraz, bertso-jaialdien antzeko gertatzen dira. Kasu horietan hiruzpalau bertsolarik parte hartu ohi dute.

Gai-jartzailerik ez dagoenean, saio hauek jarduera librekoak izaten dira eta ohikoena bizpahiru bertsolarik parte hartzea da.

prizes might be handed out, the distinctive feature of a champion is always the txapela (Basque beret). As already noted, the main event in *bertsolaritza* competitions is the Championship of the Basque Country, which is held every four years. However, each province has its own championship, and there are other contests with a competitive format (junior, school, regional, local, and so forth).⁸

In championships a specialised group, rather than a theme-presenter as such (who in this case just carries out a presenting role), is responsible for designing the performance and formulating the topics to be addressed.

It is not a straightforward task to reconstruct the historical series of national *bertsolari* championships because the organisation, level and repercussion were so different from one era to another. Although I will analyse in more detail some of these championships when I examine the history of *bertsolaritza*, we have compiled a list of the bersolaris who have managed to win the championships to date, to which is added the most recent of these four-year championships (see Table 1. Annexes, p. 90).

PUBLIC PERFORMANCES

The festival or recital format with a theme-presenter is relatively new, and most likely it derives from championships. Apparently, the oldest form of *bertsolari* performance is that of the challenge, in which two *bertsolaris* openly debated a topic or topics for hours, until one of them prevailed over the other.

Unlike the case of recitals or festivals, in public performances the *bertsolaris* themselves decide the formats and the topics they will use in their performance. Typically, less *bertsolaris* (for example, two or three) take part in these performances than in recitals. References to the situation surrounding the event predominate, and the *bertsolaris* can dedicate more time to the topics under consideration. Furthermore, the transition from topic to topic tends to be gradual.

In recitals in which there are duals between two *bertsolaris* one can see a trace of the old challenge format. That said, this challenge format appears generally more typical in other cultures' improvisation (Cuban repentistas and Galician rageifeiros amongst others).

Nonetheless, as Maximiano Traperero has pointed out, in contrast to the more poetic nature of these other demonstrations of improvisation, *bertsolaritza* puts more emphasis on the argumentative and dialectic aspect.⁹

POST-PRANDIAL PERFORMANCES

Frequently, *bertsolaris* perform after a lunch or dinner, to which one must usually sign up beforehand.

Some of these post-prandial performances have a theme-presenter, thereby resembling recitals. In such cases, three or four *bertsolaris* usually take part. Yet when there is no theme-presenter, the post-prandial performance turns into a real public performance undertaken, most typically, by two or three *bertsolaris*.

OSPAKIZUNETAN TXERTATURIKO BERTSO-SAIOAK

Oso ohikoa da bertsolariak eramatea edozein motatako ospakizunetara: ezkontza, hileta, inaugurazio, ekitaldi politiko, mota guztietako kongresu, omenaldi, azken agur edo agur-festa, kirol-gertaera, etab. Ekitaldi hauetan bertso-saioak jarduera osagarria baizik ez dira eta bertsolaritza eta bertsolarien prestigio soziala nabarmentzen dute.

BERTSOGINTZA FORMATU BERRIAK

4. Iñaki Viñaspre, Saioa Alkaiza, Paula Amilburu eta Amets Arzallus. Gasteizko jaietako bertso-saioa, 2019.

Azkenik, esan beharra dago bertso-gintzan hainbat formatu berri sortu direla azken urte hauetan. Horien artean, aipatzekoa da, besteak beste, bi bertsolari edo gehiagok antzerki moduko bat inprobisatzen dutenekoak, gidariak proposaturiko gidoi batetik abiatuz; gidoi hori egokitu egiten da bertsolariak antzerkia garatuz doazen heinean. Era berean, beste jarduera mota batzuk ere probatu dira: monografikoak (umore beltza eta erotismoa, kasu); esperimentalak (bertsolari bakar batekin, esate baterako, elementu poetikoak, dantza, jazz eta komikia txertatuz).



5

PERFORMANCES INTEGRATED INTO EVENTS

Bertsolaris also typically take part in special events: weddings, funerals, inaugurations, political acts, all kinds of meetings, tributes, farewell parties, sporting events, and so on. These are clearly complementary performances which exemplify the social prestige of *bertsolaritza* and the *bertsolari* themselves.

NEW PERFORMANCE FORMATS

5. Iñaki Viñaspre, Saioa Alkaiza, Paula Amilburu and Amets Arzallus. *Bertso* session at the annual city festival of Vitoria-Gasteiz (Araba), 2019.

Finally, one should point out that in recent years a variety of new performance formats have emerged. Amongst these, for example, the *bertsolaritza* plot stands out. Here, two or more *bertsolari* improvise on a kind of open theatrical script which the theme-presenter proposes, all the while adjusting it according to how the *bertsolari* develop the plot. Other kinds of performances have also been tried out: monographic performances (involving black humour, eroticism, and so forth); experimental performances (with one single *bertsolari* combining, amongst other things, poetic, dance, jazz, or comic book elements).

Bertsolari ofizioa

GAIK: ZER ABESTEN DU BERTSOLARIAK?

Bertsolariak bere inprobisazioan poesia eta txantxa nahastuz, hainbat arlotako informazioa eskaintzen du. Bertsolariaren ekarpena, hain zuzen, maila desberdinen nahasketa horretan datza: gizarte-albisteak, politika, sexu-kontuak, kultura, diharduten herriko gorabeherak eta entzuleriaren egoerari buruzko aipamenak nahastuz, eta hori guztia beste bertsolariek esandakoaren aurkako zirrikadez ziprztinduta.

MODUAK: NOLA INPROBISATZEN DU BERTSOLARIAK?

Bertsolariak betiere doinu jakin batean bermatuz eta *a capella* abestuz inprobisatzen du¹⁰. Doinuak ezartzen du eredu metrikoa, alegia, silaba kopurua; halere, bertsolariak ez ditu zenbatzen silabak, hautaturiko doinuaren barruan egokiaraztea besterik ez du egiten.

Errimari dagokionez, hori ere doinuak markatzen du, eta betiere errima kontsonante edo osoa izaten da. Joanito Dorronsorok¹¹ 3.000 doinu inguru desberdin zentsatu, katalogatu eta komentatu ditu. Horietako gehienak euskarazko herri-abestietatik hartuak dira, halere, gero eta sarriago, bertsolariek *ad hoc* doinuak enkargatzen dizkiete beren konfiantzako musikariei, edo eurak arduratzen dira melodia ezagunak aukeratzeaz eta beren premietara egokitzeaz.

Bertsogintzan gehien erabiltzen diren estrofak zortziko deritzenak dira: zortziko txikia eta zortziko handia. Zortziko txikiak 13 silabako lau puntu edo segmentu ditu, eta horietako bakoitzeko azken hitzak markaturiko errima osatu behar du betiere. Tradizioz, Hego Euskal Herriari behintzat, puntu bakoitza hurrenez hurren 7 eta 6 silabako bi lerrotan idazten da, hortik zortziko izena. Osaera berbera aurkezten du zortziko handiak; desberdintasun bakarra, kasu honetan puntu bakoitzak 18 silaba edukitzea, hurrenez hurren 10 eta 8 silabako bi lerrotan idazten direnak (ikus 2. Taula. Eranskinak, 90. or.).

Zortziko txikiari puntu bat gehituz (bi lerro, hamahiru silaba, dagokion errimarekin), hamarreko txikia lortzen da, eta beste horrenbeste gertatzen da zortziko handiarekin. Euskal herri-abestietako asko eskema metriko hauetara egokitzen dira. Beste estrofa mota asko daude baina, oro har, bertsogintzan erabiltzen den oin errimatuen kopurua oso gutxitan izaten da bederatzitik gorakoa¹². Bestalde, oso ezohikoak dira errima mota bat baino gehiago konbinatzen direneko estrofak (adibidez, dezima inprobisatua gertatzen dena).

Normalean, bertsolariak, proposatu den gaia (edo bakarka ari ez den kasuan, kideak bota berri duen bertsoa) entzun ondoren, ezer baino lehen, bere bertsoaren akabera moldatzen du (azken puntua, bere errimarekin), formulazioa zainduz eta hautaturiko doinuaren egitura metrikoa egokituz. Hortik abiatuz, eta menu informatiko bat balitz bezala, errima osatzeko baliak ditzakeen hitzak bilatzen ditu eta gidoi moduko bat eraikitzen du, pentsatua daukan akaberarekin ongi etorriko dena. Eginkizun horretan joaten zaizkio kantatzen hasi aurretik daukan segundo horiek. Bertsoaren gainerakoa, beraz, abestu ahala asmatuko du¹³.

6. Miren Amuriza eta Joxe Agirre kantuan. Ereñotzuko bertso-jaialdia, 2010.



The 'Bertsolari' Profession

THE TOPICS: WHAT DO 'BERTSOLARIS' SING ABOUT?

Bertsolaris blend, via poetic and playful improvisation, varied fields of information. The *bertsolaris'* contribution is, effectively, this blending of different levels: addressing contemporary social, political, sexual, cultural and local subjects combined with references to the situation in the auditorium, and all this dashed with personal allusions and discussion with messages aimed at their fellow improvisers.

THE METHODS: HOW DO 'BERTSOLARIS' IMPROVISE?

Bertsolaris improvise by relying on a melody sung a cappella.¹⁰ It is the melody that conditions the metric guideline, which is syllabic, although *bertsolaris* do not count the syllables; instead, they simply fit them together in the chosen melody.

As regards the rhyme, it is also conditioned by the melody and it is always consonant. Joanito Dorronsoro¹¹ has gathered a list of, catalogued and commented on around three thousand melodies. Most of them derive from the Basque folk songbook, although it is increasingly more typical for *bertsolaris* to commission melodies ad hoc from musicians they are friends with; or they themselves adapt well-known melodies, adjusting them to their individual expressive needs.

The most used stanzas in improvisation are the so-called lesser and greater *zortzikos*. The *zortziko txikia* (lesser *zortziko*) consists of four *puntuak* (rhymes) or segments made up of thirteen syllables, each of which ends with a word that carries the rhyme. Traditionally, at least in the peninsular Basque Country, each *puntu* is transcribed in two lines or verses of seven

6. Miren Amuriza and Joxe Agirre performing. *Bertso* festival in Ereñotzu, Hernani (Gipuzkoa), 2010.



7. Audience attending a *bertso* session. Santiago Square, Hondarribia (Gipuzkoa), 2019.

1980ko hamarkadara arte, oso gutxitan erabiltzen ziren lau errimatik gorako bertsoak. Sei errima eta gehiagoko bertsoen ugaritzea gaur egungo bertsolaritzaren ezaugarrietako bat da eta, zalantzarik gabe, bertsolaritza garatzen deneko inguruabar sozio-politiko-kulturaletan gertatu den aldaketa sakonari zor zaio.

BERTSOLARIA, EMOZIOEN KUDEATZAILE

XX. mendeko azken urteetan eta XXI.eko aurrenekoetan paradigma aldaketa bat gertatu zen bertsolaritza inprobisatuaren ikerketan. Ordura arte, bertsolaritzari buruzko ikerketa guztietan gauza jakintzat ematen zen bertsolaritza literaturaren azpigenero bat zela, ahozko literaturaren barruan kokatua. Ia ikerlan guztiek poetika idatziaren marko teorikotik aztertzen zuten bat-bateko bertsolaritzaren fenomenoa, baina horrela ezin azaldu zitekeen bat-bateko bertsoen gehiengoa.

Kontuan eduki behar da, 1940ra arte bertsolari gehienak baserriar girotik zetozela eta prestakuntza akademiko urria edo batere ez zeukatela; gaur egun gehienak unibertsitarioak dira. Bertsolarien prestakuntza intelektuala areagotuz doan heinean, berauek garatzen duten arteari buruz teorizatzen hasi dira, eta zalantzan jartzen dituzte orain arte erabili izan diren parametroak, gehienak kritika literariotik ekarriak.

Gogoeta horietatik abiaturik, bat-bateko bertsolaritzaren azterketarako marko teoriko berri baten formulaziora iritsi dira, azken urte hauetan onarpen-maila handia irabazi duena, hainbat aplikazio eremutarako baliagarria dela ikusi baita¹⁴.

Marko teoriko berriaren funtsezkoena zera da, bertsolaritza genero erretorikotzat hartzen duela. Erretorika da, beraz, marko teoriko berriaren

and six syllables respectively, from where the name *zortziko* derives (*zortzi* meaning “eight” in Euskara, and *zortziko* literally “of eight”). The *zortziko handia* (greater *zortziko*) is configured in the same way, although in this case each *puntu* consists of eighteen syllables, which are transcribed in two lines of ten and eight syllables respectively (see Table 2. Annexes p. 90).

By adding one *puntu* (two lines, thirteen syllables with their corresponding rhyme) to the *zortziko txikia*, one gets the *hamarreko txikia* (lesser *hamarreko*, with *hamarreko* literally meaning “of ten”). Many Basque folk songs are structured in these metric outlines. There are many other kinds of stanzas, but at the end of the day there are rarely more than nine rhyming words in this improvisation.¹² Meanwhile, stanzas in which more than one kind of rhyme is used are not typical (in contrast to what happens, for example, in the improvised *décima* or ten-line stanza).

Generally speaking, after hearing the topic proposed (or the *bertso* their companion has just sung if not performing alone), *bertsolaris* usually think first about the end of the *bertso* —the final *puntu*, with its corresponding rhyme—taking care to formulate it correctly and adapt it to the melody chosen. From this moment on, almost like a computer menu, a range of rhyming words that might be used opens up to them in their heads and they work out a basic script designed to lead to the end of the *bertso* they have already thought out. They do all of this in the few seconds they might have at their disposal before beginning to sing and then they improvise the rest of the *bertso* as they go along.¹³

Prior to the 1980s, stanzas of more than four rhymes were rarely used. The proliferation of six or more rhymes is a feature of contemporary *bertsolaritza* and is undoubtedly the result of a radical change in the socio-political circumstances in which *bertsolaritza* has developed since then.

‘BERTSOLARIS’, AGENTS OF EMOTIONS

At the end of the twentieth and beginning of the twenty-first century there was a change in the paradigm of research on improvised *bertsolaritza*. Until that time, all research on *bertsolaritza* naturally assumed that it was a sub-genre of literature framed in general terms within oral literature. Therefore almost all research addressed the phenomenon of improvised *bertsolaritza* from the theoretical framework of written poetry, which was unable to explain the vast majority of improvised *bertsos*.

One should bear in mind that up to the 1980s, most *bertsolaris* came from a rural background with little or no education; today they are mostly university-educated. As the *bertsolaris*’ academic level grew, so they began to theorise on the art they practiced, questioning the fashionable parameters imposed on their craft, most of which had been imported from literary criticism.

As a result of these reflections, a new theoretical framework was devised for the study of improvised *bertsolaritza*, which in recent years has gained a major consensus and shown itself to be effective in the various ways it has been applied.¹⁴

The central idea of the new theoretical framework understands *bertsolaritza* as a rhetorical genre. Rhetoric is, then, the main foundation of this new theoretical framework; a foundation which, naturally, includes new analytical concepts and instruments stemming from the most prestigious researchers on orality.¹⁵

7. Ikus-entzuleak bertso-saioan adi. Hondarribiko Santiago Plaza, 2019.

zutabe nagusia, eta bertan integratzen dira, noski, ahozkotasanaren ikertzaile garrantzitsuenen analisi tresnak eta kontzeptuak¹⁵.

Bertsolaritza genero erretorikotzat hartzeak berekin dakar, besteak beste, sortu den testuaren erlatibizazioa, betiere, bertsolariak kasu bakoitzean inprobisatzen duen testuinguruaren eta egoeraren arabera aztertu beharko baita.

Izan ere, bat-bateko bertsolariaren helburua ez da balio literario handiko testuak sortzea, entzuleengan emozioak eragitea baizik. Bertoak betiere testua behar du, eta, aurrerago ikusiko dugunez, gaur egungo bertsolariek sarritan testu bikainak sortzen dituzte. Halere, bat-bateko bertsoaren balioa testuaren kalitatera murriztea bat-bateko bertsolaritzaren funtsari iruzur egitea litzateke.

Liburu honen hasieran, bertsolaria publiko baten aurrean bertoak inprobisatzen dituen delata esan badugu ere, egokiago litzateke bertsolaria emozioen kudeatzaile delata esatea. Emozioak sortzea eta eragitea, horixe da bertsolariaren helburu nagusia¹⁶.

Batuetan zaila izango da testu on bat gabe entzuleak hunkitzea (adibidez, egoera formaletan, edo entzuleria ugaria eta heterogeneoa denean); beste batuetan, ordea, nahikoa izango da inguruneke elementu bat aipatzea, pertsonaia miretsi bat edo balio partekatu bat gogoraraztea, emozioak eztanda egiteko. Era berean, hautaturiko doinua eta kantatzeko modua ere bertsolariak kudeatzen jakin beharreko elementuak dira, bere helburua lortuko badu.

8. Maddalen Arzallus eta Andoni Egaña herriko plazako bertso-saioan. Segura, 2017.

9. Hainbat bertsolari Heineken Jazzaldiaren barruan egindako Bertso-jazz saio berezian. Donostia, 2016.

10. Bertsolariak kantatzeko zain, 2018ko Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finalean. Miribilla, Bilbo, 2018.



8. Maddalen Arzallus and Andoni Egaña at a bertso session in a public square. Segura (Gipuzkoa), 2017.

9. Several bertsolaris at a special Bertso-jazz session as part of the Heineken Jazzaldia festival. San Sebastian (Gipuzkoa), 2016.


10. Bertsolaris waiting to sing at the Bertsolari Championship Final of Biscay. Bilbao Arena, Bilbao (Biscay), 2018.

Understanding *bertsolaritza* as a rhetorical genre implies, amongst other things, relativizing the text produced, which should now be considered always dependent on the context and the situation in which *bertsolaris* improvise in each case.

At the end of the day, the goal of improvising *bertsolaris* is not to produce highly literary texts, but rather to provoke emotions amongst their listeners. All *bertsos* require a text and, as we will see below, contemporary *bertsolaris* often produce excellent texts. However, reducing the improvised *bertso* to a mere text is to adulterate the essence of improvised *bertsolaritza*.

Although at the beginning of this book I argued that a *bertsolari* is someone who improvises *bertsos* before an audience, I should qualify this by saying that a *bertsolari* is an agent of emotions. In other words, the principal objective of *bertsolaris* is to create and induce emotions.¹⁶

Occasionally it will be difficult to move the audience without a good text (for example, in formal situations or when there is a large heterogeneous audience); yet on other occasions it is enough to mention some element of the surroundings such as an admired character or a shared value which might touch the audience. Likewise, the melody chosen and the way of signing are also elements which *bertsolaris* must know how to manage in order to achieve their aim.



Bertsolaritzaren historia laburra

Bertsolaritzaren inguruan dagoen mito baten arabera, haren jatorria antzinate zaharrenean bilatu behar da, eta beste muturreko kontramitoak dioenez, berriz, bertsolaritza nazionalismoaren *asmazio* berri bat besterik ez da; Koldo Mitxelena erdibidean kokatzen da, eta horixe dirudi arrazoizkoena:

«Tradizioa (bertsolariena) zaharra da, Garibay aipatzen dituen XV. mendeko dama inprobisatzaileen garaikoa gutxienez»¹⁷.

Joxe Azurmendi¹⁸, bere aldetik, Bizkaiko Foru Zaharrea aurkituriko bi aipamen dakartza (1452an paperean idatziak). Kontuan hartzekoak dira, zalantzarik gabe, bertsolaritzari buruzko aipu zaharrenak direlako; froga ukaezina, beraz, 1452an jadanik bertsolaritza gauza arrunta eta sustraitua zela, espresuki debekatua izatea merezi izateko. Foruak bi mota aipatzen ditu. Alde batetik, erostari edo hiletariena, oso ezaguna beste kultura batzuetan ere. Bestalde, interesgarriagoa da emakumeek garatu zuten genero satirikoa eta Foruak «profazadas» deritzona. Dirudienez, azoka eta beste zenbait ospakizunetan garatzen zuten beren inprobisazioaren artea, eta, segur aski, hauek har daitezke gaur egungo bertsolarien aitzindarizat.

Dena dela, iraganeko emakume inprobisatzaile haien kasuan egin dezakegun gauza bakarra behinola existitu zirela baieztatzea da. Aintzat hartzeko moduko bertsolaritzaren corpus bat aurkitu ahal izateko, XVIII. mendearen amaieraraino joan beharra dago. XIX. mendea hobeto dokumentatua dago, bai izenei eta datu biografikoei dagokienez eta bai kontserbaturiko piezei dagokienez ere. Fenomeno aipagarri bat eta oraingoz azalpenik aurkitu ez zaiona da nola eta zergatik, XV. mendetik XIX. mendera dagoen tarte horretan, desagertu zen emakumea bertsolarizatit, jarduera horretako subjektu aktibo gisa behintzat.

Halere, daukagun dokumentazioaren arabera garai hartatik kontserbatu diren bertso gehienak bertso jarriak dira, paperean idatziak alegia eta ez inprobisatuak. Badakigu, erreferentzia batzuei esker, bertso haiek idazten zituzten bertsolariak inprobisatzen ere jardun ohi zutela, baina kontserbatzen den bertso inprobisatuaren kopurua oso urria da, eta ezer gutxi esan daiteke garai hartako bertso inprobisatuaren ezaugarriak buruz (sortze-prozesua, zabalkundea, kontsumoa).

Lehenagoko aipamenean bat ere badagoen arren, bat-bateko bertso-gintzaren lehenbiziko erreferentzia dokumentatu eta sinesgarria XIX. mendearen hasierakoa da, zehazki 1802koa, eta hor ikusten da bertso-saioen ohiko formatua desafioa izaten zela, ia beti bi bertsolarien artekoa eta orduak eta orduak iraun zezakeela. Pablo Gorosabel (1803-1868) kronistak dioenez, desafio horietako batzuetan, Tolosako plazan egin zenean, esate baterako, 4.000 entzule inguru bildu omen ziren. Horrek erakusten du zer-nolako zaletasuna zegoen garai hartan bat-bateko bertsolaritzarako. Dena dela, ezer gutxi esan dezakegu garai hartako bertsolaritzari buruz, oso errotua zegoela adieraztea besterik.

Bertsolari inprobisatzaileen bertsoak sortzeko moduak eta azken produktua aztertzeko orduan, esan beharra dago 1960ko hamarkadara arte ez dagoela behar besteko garrantzia daukan bat-bateko bertsoen corpusik. Aipatu datara arte daukaguna bertso-zati eta -pasadizoan bilduma bat besterik ez da; beraz, ez dago materialik ikerketa fidagarriak egin ahal izateko. Bertsolaritzako *klasikotzat* hartzen direnak (Etxahun,

11. Aitor Mendiluze 2013ko Bertsolari Txapelketa Nagusian bertsoa pentsatu bitartean. BEC, Barakaldo.

A Brief History of 'Bertsolaritza'

In contrast to the myth which attributes ancient origins to *bertsolaritza* and the counter-myth that attempts to reduce it to a modern "invention" of Basque nationalism, Koldo Mitxelena fell somewhere in between both positions; something which appears the most reasonable perspective to take:

"The tradition [of the *bertsolari*] is old, and goes back at least to the improvising verse ladies of the fifteen century that Garibay speaks about".¹⁷

Joxe Azurmendi,¹⁸ meanwhile, adds two mentions of the phenomenon in the Old Law (Fuero Viejo) of Biscay, written down on paper in 1452. These are important since they unquestionably represent the oldest mention of *bertsolaritza*; and they provide irrefutable proof that, as early as 1452, *bertsolaritza* or one of its expressions was something as common and deep-rooted as to deserve its express prohibition.

The Old Law mentions two modalities: On the one hand, there were paid female mourners at funerals, a well-known modality in other cultures. On the other, and more interesting still, is the satirical genre practiced by women that the Old Law termed *profazadas*. Apparently, they improvised at fairs, festivals and other events, and in all likelihood, they might be considered the predecessors of contemporary *bertsolari*.

Nevertheless, the truth is that, in the case of these women improvisers of the past, we can do no more than mention their existence. In order to find the first reasonably important body of *bertsolaritza* work, one must go back to the late eighteenth century. The nineteenth century is better documented, both as regards names and biographical data and in terms of the pieces of work preserved. One fact worth mentioning, which until now no one has been able to explain, is how and why during the period from the fifteenth to the nineteenth centuries women disappeared from *bertsolaritza* activity, at least as an active subject within this activity.

However, the documents contain mostly non-improvised *bertsos* (written *bertsos* / *bertso jarriak*). The references tell us that the *bertsolari* who wrote these *bertsos* were also used to improvising, but the number of improvised *bertsos* we have at our disposal is truly limited; and it is difficult to say anything in great detail about the characteristics of improvised *bertsos* at that time (in other words, their creative process, diffusion and reception).

11. Aitor Mendiluze thinking up a *bertso* at the 2013 National Bertsolari Championship. BEC, Barakaldo (Biscay).





12

Xenpelar, Bilintx, Otaño...), dauden aztarnen arabera, inprobisatzaile handiak izan ziren (gehienak, ez denak); halere, bertsolaritzaren historian ematen zaien garrantzia, idatzi (edo diktatu) zituzten bertsoei eta gure egunetara arte iritsi direnei zor zaie, eta ez, inolaz ere, bat-bateko bertsoei. Sortzeko moduagatik, bertso horiek gehiago dagozkio kordel literaturatik hurbileko genero bati bertsogintza inprobisatuari baino¹⁹.

XX. mendean zehar, bertsolaritzak aldaketa sakon eta progresiboa jasan zuen. Izenak bere horretan badirau ere, XX. mendearen hasierako bertsolaritzak ia ez dauka zerikusirik aurreko mendearen azken urteetakoarekin. Besteak beste, bertsolaritza mota idatziak, mendearen hasieran garrantzitsuena, bere nagusitasuna lagako dio bat-bateko bertsolaritzari. Liburuaren hasieran esan dugun bezala, bertsolaria, gaur egun, bere bertsoak bat-batean eta publiko baten aurrean asmatzen dituen da.

Laburbilduz: nahiz eta gauza jakina den bertsolaritza askoz ere lehenago erroturiko jarduera dela gure artean, bertsogintza inprobisatuaren historia dokumentatua 1935. urte inguruan hasten da. Data horretara arte daukagun bakarra desafio batzuen berri eta bertso solte batzuk dira, oroite kolektiboan bizirik iraun dutenak. Ezer gutxi esango dugu, beraz, data hori baino lehenagoko bat-bateko bertsogintzaz.

Bertsolaritzaren gainean egin diren historiak normalean 1800. urtetik aurrera hasten dira, hainbat denboraldi luze ezarriz, eta horietako bakoitzean protagonista handi bat edo batzuk nagusitzen dira. Halere, lan honetarako ezarri dugun ikuspuntutik begiratuta, sailkapen horiek ez digute balio hainbat arrazoirengatik. Lehenengo eta behin, esan dugun bezala, zaku berean sartzen direlako bi genero desberdin: bertsolaritza inprobisatua eta inprobisatua ez dena. Bigarren, kontuan hartzen diren denboraldien izendapena bera bat-bateko bertsolaritzari arrotzak zaizkion kategoriei dagokielako (aurre-erromantizismoa, erromantizismoa...).

11. Aitor Sarriegi kantuan eta Andoni Egaña ondoan, jaietako bertso-saioan. Zizurkil, 2018.

12. Goizuetako jaietako bertso-saioa. Julio Soto kantuan, ondoan Eli Pagola. 2016.

12. Aitor Sarriegi singing with Andoni Egaña beside him, in a *bertso* session at an annual town festival. Zizurkil (Gipuzkoa), 2018.

13. Performance of *bertsolaris* at the Goizueta town festival. Julio Soto singing, next to him Eli Pagola. Goizueta (Gipuzkoa), 2016.

Although the phenomenon had been mentioned previously in history, the first reliable documented reference to improvised *bertsolaritza* dates from the early nineteenth century, specifically in 1802. Here it states that the most typical form of improvised *bertso* was that of the challenge, normally between two *bertsolaris*, which might last for hours. According to the chronicler Pablo Gorosabel (1803-1868), some of those challenges, such as that for example held in the square of Tolosa (Gipuzkoa), managed to attract up to four thousand listeners, which gives us some idea of the appeal that improvised *bertsolaritza* must have had at that time.

It happens, however, that little can be said about improvised *bertsolaritza* of that time, beyond verifying its roots.

The fact is that, when it comes to researching the production methods and the final product of improvising *bertsolaris*, it is only from the 1960s onwards that we have at our disposal a reasonably important body of improvised *bertsos*. Prior to this time, all we have is a compendium of fragments and anecdotes which do not really allow for reliable research. Most although not all of those *bertsolaris* considered the “classic” figures of *bertsolaritza* (Etxahun, Xenpelar, Bilintx, Otaño, and so on) were, according to all indications, great improvisers. Yet the status they enjoy within the history of *bertsolaritza* is almost exclusively due to written—or dictated, but whatever the case, non-improvised—*bertsos* which have survived to this day. Because of the way they were produced, these *bertsos* belong to a genre closer to cordel literature than improvised *bertsolaritza*.¹⁹

Bertsolaritza experienced a progressively radical change throughout the twentieth century. Although it retained the same name, early twentieth-century *bertsolaritza* had little in common with that of the late nineteenth century. Amongst other developments, the written modality of *bertsolaritza*—the most significant form at the beginning of the nineteenth century—had given way to the improvised modality. As I maintained at the beginning of the book, today *bertsolaris* improvise *bertsos* before an audience.



13

Guk nahiago izan dugu bat-bateko bertsolaritza dokumentatuagoan zentratu, beste hainbat arrazoiren artean, XIX. mendeko bertsolaritzari buruz historia asko eta oso gomendagarriak daudelako²⁰. Jakina, egin dugun denbora-banaketarako proposamena, Xabier Payak ere, aipaturiko *Ahozko Euskal Literaturaren Antologia* liburuan jasotzen duena, behin behinekoa, eztabaidagarria eta hobegarria da. Proposamen honek XX. mendea baino lehenagoko bi aldi barne hartzen ditu. Bi alde horiek bat-bateko bertsolaritzaren historiaurrea dei genezakeena osatzen dute eta horrexegatik guk hemen hurrengo sei aldiak aintzat hartuko digutu (ikus 3. Taula. Eranskinak, 91. or.).

In sum, then, although there is evidence that it was a deeply-rooted activity long before, the documented history of improvised *bertso* starts around 1935. Until that date we only have information about challenges and the odd *bertso* preserved in collective memory. I will say little, then, about improvised *bertso* before this date.

Stories of *bertsolaritza* being fashionable begin around 1800, and establish major periods with each dominated by one or more unique figures. However, on the basis of my approach here, such classifications are unsatisfactory for several reasons. Firstly, because, as has been noted, two genres are mixed up: improvised *bertsolaritza* and non-improvised *bertsolaritza*. In second place, the denomination of periods itself alludes to categories which are external and foreign to improvised *bertsolaritza* (Pre-Romantic, Romantic, and so on).

I prefer to focus on more documented improvised *bertsolaritza*, amongst other reasons because there are many and highly recommended histories of nineteenth-century *bertsolaritza*.²⁰ My proposed periodisation, which Xabier Paya also uses in his aforementioned *Anthology of Basque Oral Literature*, is, of course, provisional, can be improved and is open to debate. The proposal includes two periods prior to the twentieth century. These two periods make up what we may think of as the prehistory of improvised *bertsolaritza*, and it is for that reason that here we will only consider the following six periods (see Table 3. Annexes, p. 91).

Bazterreko bertsolaritzatik lehenbiziko txapelketetara

BERTSOLARITZAREN ERREBINDIKAZIOA: MANUEL LEKUONA

XX. mendearen hasieran, Euskal Herriko intelektual gehienek erdeinatu egiten zuten bat-bateko bertsolaritza, bazterreko generotzat zeukaten, kalitate eskasekotzat bai literatura eta bai euskara aldetik, eta duintasunik gabekotzat. Salbuespen bakarretako bat Manuel Lekuona oiartzuarra dugu. Apaiz gaztea zela, Bergaran, 1930ean egin zen Eusko Ikaskuntzaren V. Kongresuan aurkeztu zen euskal herri-poesiaz hitz egitera, adibideak eman zituen, bertsolaritzaren mekanika sistematizatu zuen, dauden generoak sailkatu zituen eta horrela finkaturik utzi zituen bertsolaritzaren azterketa zientifikorako oinarriak. Berari zor diogu, neurri handi batean, ahozko literaturaren birgaitzea oro har, eta bat-bateko bertsolaritzarena bereziki; eta urte batzuk geroago haren iloba Juan Mari Lekuona, apaiza bera ere, gailenduko zen eginkizun horretan.

BAZTERREKO BERTSOLARITZATIK LEHENBIZIKO TXAPELKETETARA: 1935-1936


36ko gerraren²¹ aurreko urteetan, Euskal Herriko intelektualetako asko oinarri sendo baten bila zebiltzan berorren gainean *euskal kulturaren berpizkunde* eraikitzeke, baina ez zetozen denak bat berpizkunde horretan bertsolaritzari zegokion tokiaren gainean. Joxe Ariztimuño *Aitzol* apaiza amesturiko berpizkunde horren giltzarria bertsolaritza izatearen defendatzaile sutsua zen. Auzi horri buruz idatzi zituen artikulu ugarietako batean bertsolariak nola aurkeztu behar duen proposatzen du: «*Discretamente tocado con arcaicas vestiduras*». Era horretan adats horaileko trobadore erromantiko bat gogoraraz dezan; gainera, bertsolariaren deklamazio mimikari nolabaiteko mugikortasuna ematearen eta dekoratu prosaiko zeharo aldatzearen aldeko agertzen da²².

Neurri horiek ez ziren sekula ezarri, baina aipuak argi eta garbi erakusten du bertsolaritzari aitortzen zitzaion balioa ez zela, kasurik onenean ere, balio instrumental soiletik pasatzen. Euskal kulturaren berpizkunde irrikatu hura aurrera eramateko tresna gisa balio zezakeen neurrian balioesten zen bertsolaritza, oso nekez lor zitekeen helburua bestalde, populazioaren gehiengo analfabetoa baitzen bere hizkuntzan.

1934. urtearen erdialdean Aitzol eta beste intelektual batzuk bildu ziren, eta hala sortu zen lehenbiziko Bertsolari Txapelketa bere araudi, bere epaimahai eta bere sari eta guzti. Mugimendu nazionalistako gazte erakundea, Euzko Gaztedi, arduratuko zen bertsoak kopiatzeaz, gero argitaratzeko. Sistema guztiz fidagarria ez bazen ere (eskuz egiten zen, bakoitzak bertsoaren zati bat kopiatuz, ondoren denen artean osatzeko), horrela sortu zen bat-bateko bertsolaritzari buruzko nolabaiteko fidagarritasuna daukan lehenbiziko dokumentua.

14. Juan Frantzisko Petriarena *Xenpelar* idazle eta bertsolariaren erretratua. Antonio Valverde Ayalde margolariak 1969an egindakoa.

14. The writer and bertsolari Juan Francisco Petriarena *Xenpelar* as painted by Antonio Valverde Ayalde. 1969.



14

From Marginal 'Bertsolaritza' to the First Championships

THE RECOVERY OF 'BERTSOLARITZA': MANUEL LEKUONA

At the dawn of the twentieth century most Basque intellectuals scorned improvised *bertsolaritza*, considering it a marginal genre, of little quality—at both a literary and linguistic level—and not at all proper. One of the exceptions to this general outlook was Manuel Lekuona, a young priest from Oiartzun (Gipuzkoa) who attended the Fifth Conference on Basque Studies, held in Bergara (Gipuzkoa) in 1930; there he spoke about popular poetry, offered examples, systematised the mechanics of *bertsolaritza*,



15. Jose Manuel Lujanbio *Txirrita* kantuan Bilaron.

BERTSOLARITZA KLASIKOAREN PARADIGMA: TXIRRITA

Bat-bateko bertsolaritzari dagokionez, XX. mendearen lehen herena Jose Manuel Lujanbio *Txirrita*, hernaniar bertsolari handiak betetzen du ia erabat, mendearen hasieran jadanik bere garaiko bertsolaritzako funtsezko erreferentzietako bat baitzen.

Gorpuzkera handiko gizona, eta, bertsolaritza ez beste edozein lanetarako afizio handirik gabea, bere irudia antzinagoko beste bertsolari batzuek ere baduten kondairazko lauso horretan bildua iristen zaigu.

Desberdintasuna da Txirritaren bat-bateko bertso asko kontserbatzen direla, ia denak ere pasadizo xelebreak eta pertsonaiaren izaera bihurriarekin lotuak.

Txirritaren bertso ospetsuenei dagokienez, baliabideen banaketak eta irudien trinkotasunak pentsarazten du ez zirela beti bat-bateko bertsoak izango, paperean idatziriko bertsoak baizik edo, hobeto esan, diktaturiko bertsoak, Txirritak berak ez baitzekien idazten. Bertsopaperean corpus horren gainean garatu da, esplizitu edo inplizituki, bertsolaritza klasikoaren eredu²³.

Txirritaren irudia ezinbestekoa da XIX. mendearen azken laurdenean eta XX.aren lehenengoan. Hala, hor aurkitzen dugu lehenbiziko bertsolari txapelketan, pronostiko guztien aurka Iñaki Eizmendi *Basarrik* irabazi zuena, Zarautzen finkaturiko bertsolari gazte bat bera. Txirritak hurrengo urtean irabaztearekin konformatu behar izan zuen, 1936ko txapelketan, hil baino hilabete batzuk lehenago.

classified its genres and thus created the bases for the academic study of *bertsolaritza*. Indeed, in many ways, in the Basque context both oral literature in general and improvised *bertsolaritza* in particular owe their recovery to him, a task in which his nephew and likewise a priest, Juan Mari Lekuona, would later stand out in remarkable fashion.

FROM MARGINAL 'BERTSOLARITZA' TO THE FIRST CHAMPIONSHIPS: 1935-1936

In the years prior to the Spanish Civil War,²¹ many Basque intellectuals were determined to create the foundations for a "renaissance in Basque culture", but not all of them were agreed on the role that *bertsolaritza* should play in this renaissance. The priest Joxe Ariztimuño *Aitzol* was a staunch defender of making *bertsolaritza* the cornerstone of this long hoped-for renaissance. In one of the many articles he dedicated to the subject, he contended that *bertsolaris* should perform "discretely dressed in old-fashioned clothes" thereby promoting an image of the "romantic golden-haired troubadour" and advocated applying a certain degree of mobility to their declamatory body language, as well as a radical change in the prosaic decorations surrounding *bertsolaritza*.²²

These measures were never adopted, but his words clearly show that the value assigned *bertsolaritza* was, at best, as a means to an end. *Bertsolaritza* was only appreciated insofar as it might serve as a means to carry forward the long awaited renaissance of Basque culture; a quite difficult undertaking in that most of the population was illiterate in its own language.

In mid-1934 Aitzol met with other intellectuals, and thus the first proper championship was established, with rules, a jury and prizes. The nationalist movement's youth organisation, Euzko Gaztedi, took charge of writing down the *bertsos* improvised there and these were later published. Although this was not a very reliable system (different people wrote different pieces of each *bertso* down by hand, and they were later recompiled), this led to creating the first reasonably important document about improvised *bertsolaritza*.

THE PARADIGM OF CLASSIC 'BERTSOLARITZA': TXIRRITA

Improvised *bertsolaritza* during the first third of the twentieth century was dominated by the imposing figure of Jose Manuel Lujanbio *Txirrita*, from Hernani (Gipuzkoa), who was already by the turn of the century one of the main reference-points of *bertsolaritza* at that time.

A physically large man with little vocation for any other work outside singing *bertsos*, his personality is shrouded by the same mist of legend that envelops other *bertsolaris* from the far off reaches of history.

The difference is that quite a few of Txirrita's *bertsos* have been preserved, almost all of which are connected to some anecdote or other which is, in turn, linked to his mischievous nature.

As regards Txirrita's most celebrated *bertsos*, the distribution of resources and depth of characters would seem to indicate that these were not improvised, but rather written—or more accurately transcribed, because Txirrita could not write—*bertsos*. The classic model of *bertsolaritza* was

Txirritak, normalean, parranda giroan botatzen zituen bere bertsoak. Topiko bihurtu da garai hartako bertsoari *sagardotegiko bertso* deitzea, horietatik baitziren bertso-saioak egiteko lekuri ohikoak —eta gogokoak—, noizbehinka antolatzen ziren lehiaketetan ere parte hartzen zuen arren. Txapelketak, ordea, gertakizun solemnea ziren, bertsoari berari arrotzak zitzaizkion irizpide batzuen arabera antolaturiko errito moduko bat. Entzuleria ere desberdina zen. Han izaten ziren betiko bertsozaleak, baina baita Euskal Herriko intelektuak ere. Txirrita ez zen batere eroso sentituko giro arranditsu hartan, eta garbi ikusten da hori, txapelketan, bere bastoiarekin Aitzol epaimahaikidea seinalatuz, Txirritak bat-batean bota zuen honako bertso honetan:

*Larogei urte gainean ditut
nago hanketako minez,
Donostiara etorria naiz
herren haundia eginez.
Bi bastoiekin txit larri nabil
pausorik eman ezinez.
Euskera ia ahaztu zait eta
erderaritan jakin ez,
maixu batekin eskolan laster
hasi behar det latinez.*

Mota honetako bertsoetan Txirritaren bertsoek duten beste adierazgarri bat sumatzen dugu, erabat moderno bihurtzen duena: bere gatza eta zorrotasuna, egoera dialektiko konprometituenetan irtenbidea aurkitzeko zeukan abilitadea.

ISILTASUN ALDIA: 1936-1945

Gerraren izugarrikerien ondoren, gerraostea ez zen hobeia izan, batez ere, Euskal Herria bezala, frankistek *traidore* deklaratu zituzten lekuetan. Aitzol, lehenbiziko bi txapelketen sustatzaile nagusia, fusilatu egin zuten Hernanin 1936. urte hartan bertan. Aldi haren funtsa Juan Kruz Zapiarainen bertso honen isiltasun deiadartsuan islatzen da; analfabeto izaki, lo hartzen alferrik ahalegintzen zen bitartean, andreari diktatu zion bertso honek sublimatzen du garai hartako izugarrikeria:

*Sentimentu asko dauzkat nerekin
orain kontatu beharrak
ez dakit nola zuzenduko 'iran
egin dituzten okerrak,
pazientzitik ez naiz atera
Jaungoikoari eskerrak;
leku askotan jarri dituzte
tristura eta negarrak,
lehen hamar lagun ginan etxean
ta orain hiru bakarrak.*

developed, whether explicitly or implicitly, on the basis of this corpus of *bertso* papers (published sheets of bertso).²³

The figure of Txirrita was omnipresent during the last quarter of the nineteenth and the first third of the twentieth centuries. We thus find him at the first *bertsolari* championship, which was won (against all predictions) by Iñaki Eizmendi *Basarri*, a young *bertsolari* from Zarautz (Gipuzkoa). Txirrita had to make do with winning the next championship, held in 1936, a few months before he died.

Txirrita used to sing mostly in informal situations. It is now a cliché to define the bertso of his time as “cider house *bertsolari*”, since these places were the most typical —and preferred— location to perform. That said, he also took part in competitions that were held now and then. Championships were, in contrast, serious occasions; a kind of rite organised along specific criteria which differed from *bertsolari* itself. The audience was also different in that the usual enthusiasts attended, but so did the Basque intelligentsia.

That Txirrita was far from comfortable in this rather pompous atmosphere is reflected clearly in this *bertso* he improvised in the championship, pointing to Aitzol, who was on the jury, with his walking-stick as he did so:

*My eighty years weigh heavily on me
and my legs ache,
I have come to San Sebastian
limping heavily all the way.
I hobble along with two walking-sticks,
unable to take a step.
I've almost forgotten my Euskara
and I cannot speak Spanish:
soon I'll have to start
learning Latin with a teacher at school.*

We find in this kind of *bertso* another dimension of Txirrita's style which makes him very modern: his wit, manifested in an ability to find a way out even in the most compromising dialectical situations.

THE TIME OF SILENCE: 1936-1945

Following the horrors of the civil war, the post-war era was equally dreadful; especially in areas, like the Basque Country, which had been declared “traitorous” by the rebels. Aitzol, the main driving force behind the first two championships, was executed immediately in Hernani (Gipuzkoa) in 1936.

The essence of this period is captured in the resounding silence of this *bertso* by Juan Kruz Zapiarain, an illiterate *bertsolari* who sublimated the horror by dictating *bertsos* to his wife which she wrote down while he tried in vain to induce sleep:

*Many feelings overwhelm me,
and I have to sing them,
I don't know how all the evil that has been done
will ever be remedied;
I have not yet lost patience*

16. Manuel Olaizola
Uztapide eta Iñaki
Eizmendi *Basarri*
bertsolariak.



BIZIRAUPEN BERTSOLARITZA: 1945-1960

FUNTSEZKO ERREFERENTZIAK: BASARRI ETA UZTAPIDE

Hiru urte erbestean eta beste hiru zigor batailo batean gatibu-lanetan eman ondoren, Iñaki Eizmendi *Basarri*, Gipuzkoara itzuli zen 1942an. Basarri Errezil gipuzkoar herrian jaioa zen, baina ia bere bizitza osoa Zarautzen egin zuen, jaioterritik kilometro gutxira. Erbestetik itzultzean, egundoko lana egin zuen. Euskal Herriko herri gehienetan jardun zuen bertsotan, aurrena Gipuzkoan eta gero gainerako probintzietan ere bai. Bere ohiko laguna, Zestoako beste bertsolari gazte bat izaten zuen, Manuel Olaizola *Uztapide*, 1935 eta 1936ko txapelketetan lehiakide izana bera ere. Hemen ezer gertatu ez balitz bezala jardun behar izaten zuten, iraganeko eta egunean egungo gauza asko alde batera utzita.

Uztapideren bertsolaritza Basarriena baino errazagoa eta herrikoia da. Segur aski, ez zeuzkan Basarriaren kezka intelektualak baina, halere, osagarri egokiena zen harentzat. Basarrik urratzen zuen bidea, berak erabakitzen zuen aldi oro nola komeni zen gai bakoitza tratatzea.

*thanks be to God;
sadness and weeping have been brought
to many places,
before there were ten of us at home,
and now there are only three.*

SURVIVAL 'BERTSOLARITZA': 1945-1960

THE BASIC REFERENCE: BASARRI AND UZTAPIDE

After three years of exile and another three years of forced labour in the so called disciplinary battalions, Iñaki Eizmendi *Basarri* returned to Gipuzkoa in 1942.

Basarri was born in the village of Errezil (Gipuzkoa) but spent most of his life in Zarautz (Gipuzkoa), a few kilometres from his birthplace. On returning home from exile, he made an interesting life for himself. As a *bertsolari* he visited practically every town in the Basque Country, first in Gipuzkoa and then in all the other provinces. His usual companion was a young man from Zestoa (Gipuzkoa), Manuel Olaizola *Uztapide*, who had also participated in the 1935 and 1936 championships. In the aftermath of the civil war, they were obliged to sing as if nothing had happened, ignoring many things both past and present.

Uztapide's *bertsolaritza* was simpler and more popular than that of Basarri. Although he did not share his intellectual concerns, Uztapide was the ideal complement to Basarri. Basarri forged ahead, clearing a path, deciding when and how to deal with each topic.

Basarri's *bertsolaritza* was, to put it one way, more intellectual. As Juan Mari Lekuona points out, it was all part of a well-defined plan.²⁴ The average enthusiast, however, tended to prefer Uztapide. Crouching behind Basarri's initiative, Uztapide wasted no opportunity to pick up on one of his comments on a particular subject. Basarri was also a journalist, working for both the written press and the radio, and a great composer of written *bertsos*. Uztapide, meanwhile, stood out as a gifted improviser and narrator.

Basarri and Uztapide's merit goes far beyond the text of their *bertsos*. At a time when *bertsolaritza* was almost the only activity in Euskara tolerated by the regime, they made sure *bertsolaritza* survived and laid the foundations for its future development. Space precludes anything more than a mere mention of a family of *bertsolari*s that made a major contribution to the preservation and prestige of *bertsolaritza* at this time, especially in Biscay: Kepa Enbeita *Urretxindorra* and also to a great extent his son, Balendin.

The historical context was of course quite different in the Northern Basque Country. After the Second World War an exiled doctor from Gipuzkoa, Teodoro Hernadorena, began visiting towns in the three Northern Basque provinces in search of *bertsolari*s; as well as organising festivals and competitions, often paying for these out of his own pocket. As a result, a large group of *bertsolari*s emerged, some of whom would go on to form part of the *bertsolaritza* elite in the 1960s and 1970s – prime amongst which were Fernando Aire *Xalbador* and Martin Treku *Mattin*.

16. The *bertsolari*s
Manuel Olaizola
Uztapide and Iñaki
Eizmendi *Basarri*.

Basarriren bertsolaritza intelektualagoa da, nolabait esatearren. Juan Mari Lekuonak adierazi zuen bezala, ongi definituriko proiektu bati erantzuten dio²⁴. Zaletu arruntak, halere, mirespen handiagoa zion betiere Uztapideri. Basarriren ekimenaren atzean babesturik, Uztapidek ez zuen aukerarik galtzen Basarrik gai bakoitzaren gainean egiten zituen komentarioei azken ukitua emateko. Basarrik kazetaritzan ere jardun zuen, bai egunkarian eta bai irratian, eta bertso asko idatzi zituen. Uztapide, berriz, gehiago gailendu zen inprobisatzaile eta kontatzaile gisa.

Basarri eta Uztapideren meritua beren bertsoen testua baino askoz harago doa. Erregimenak euskaraz onartzen zuen jarduera bakarretako bat bertsolaritza zen garai hartan, bertsolaritzaren biziraupena segurtatzen jakin zuten, ondorengo garapenerako oinarriak finkatuz. Daukagun espazio urritasuna dela eta, ez diogu eskainiko aipamen labur bat besterik bertsolaritzaren iraupenaren eta ospearen alde, batez ere Bizkaian, lan eskerga egin zuen bertsolari-familia bati. Enbeitatarrez ari gara, noski: Kepa Enbeita *Urretxindorra*, eta neurri handi batean, haren seme Balendinez.

Baldintza historikoak, jakina, oso desberdinak ziren Ipar Euskal Herrian. Bigarren Mundu Gerra amaitu zenean, mediku gipuzkoar erbesteratu bat, Teodoro Hernandorena, herriz herri korritzen hasi zen Iparraldeko hiru euskal probintziak bertsolarien bila, eta bertso-jaialdiak eta lehiaketak antolatzen, sarritan bere poltsikotik ordainduta. Horrela agertu zen bertsolari-talde aski ugari bat, horietariko batzuk 1960ko eta 1970eko hamarkadetan bertsolaritzaren gailur-gailurrean ibili zirenak, batez ere Xalbador eta Mattin.

ERRESISTENTZIAKO BERTSOLARITZA: 1960-1979

1950eko hamarkadaren amaieran, Euskaltzaindiak egundoko lana egin zuen euskal geografia guztia bertsolari bila korrituz, publikoan jardun zezaten animatuz eta probintzia-mailako txapelketak antolatuz, gero onenen artean Euskal Herriko Txapelduna erabakitzeke.

Ahalegin horien emaitza da 1960ko Bertsolari Txapelketa, Euskaltzaindiak berak antolatua. Aurrena probintzia-mailako txapelketak egin ziren, eta txapelketa nagusira (1935ean hasi zen saileko hirugarrena, gerra zela eta, hainbat urtetan bertan behera utzia egon ondoren) Euskal Herri guztiko onenak aurkeztu ziren.

Basarri izan zen txapeldun, pronostiko guztiak betez. Halere, hurrengo txapelketa (1962) Uztapidek irabazi zuen, eta, prentsako polemika garratz baten ondoren, Basarrik ez zuen gehiago parte hartu txapelketetan, beste zenbait jardunalditan lehiatzen jarraitu bazuen ere. Basarri erretiratu ostean, Uztapidek irabazi zituen 1965eko eta 1967ko txapelketak ere.

AUSPOA

Bertsolaritzaren motorra, 1960ko hamarkada honetan, ezbairik gabe, txapelketak dira, bertsolariek herrietan antolatzen diren bertso-jaialdietan parte hartzen jarraitzen badute ere. Txapelketa nagusietako bat-bateko bertsoak Auspoan argitaratzen dira, Aita Antonio Zabalak

RESISTANCE 'BERTSOLARITZA': 1960-1979

In the late 1950s The Royal Academy of the Basque Language – Euskaltzaindia, undertook a major project to seek out *bertsolaris* all over the Basque Country and encourage them to perform in public. At the same time it organised provincial championships with the aim of holding a national championship of Euskal Herria (the Basque Country).

The result of all this effort was the 1960 *bertsolari* championship, which was organised by the academy itself. The best *bertsolaris* to emerge from the aforementioned provincial championships attended the event in 1960 (which might be considered the third in the series that had begun in 1935 and that was interrupted by the civil war).

Gauzak horrela, eta aurreko txapelketetan gertatzen ez zen bezala, 1993ko txapelketa antolatu zenean, bertsolariak jadanik euskal kulturako pertsonaia ospetsu dira. Haurrek autografoak eskatzen dizkiete kalean, etengabe agertzen dira irratiko zein telebistako programetan eta ez dago bertsolaririk gabeko ekitaldi sozialik. Bertsolaritzaren gorakada hori 1993an, Egañak bere lehenbiziko txapela irabaztean, iritsiko da gailurrera. Hurrengo lau txapelketek (1993, 1997, 2001 eta 2005) garaile berbera izan zuten, Andoni Egaña, marka horrekin, bertsolaritzaren historian txapel gehien irabazi dituen bertsolaria bihurtu delarik.

Baina, esan dugun bezala, bertsolaritza txapelketak baino askoz gehiago da, gertatzen dena da honako hau bezalako azalpen labur batean ia ezinbesteko dela gauzak sinplifikatzea. Zentzu horretan, hainbat bertsolari daude txapelketetan ondoegi moldatzen ez direnak (edo beste gabe, horrelakoetan parte hartzen ez dutenak) baina zaletuen aldetik oso harrera ona daukatenak eta sarritan deitzen zaientenak mota

FROM AMURIZA TO EGAÑA

The figure of Amuriza almost completely dominated the early 1980s. As noted, he won a second time at the 1982 championship. As regards the following championship, there was bitter controversy and it had to be postponed. It was finally held in 1986 rather than in 1985, when it was originally programmed. Yet its organisation was now not in the hands of the Basque Academy Euskaltzaindia, but was instead taken on by a working group made up of both *bertsolaris* and other important figures in the *bertsolaritza* movement. With respect to the organisation of that championship, the Bertsolari Elkarte (Bertsolari Association) was formed in 1987, which in 1996 was renamed the Bertsozale Elkarte (Association of the Friends of *Bertsolaritza*).


Sebastian Lizaso, the son of another *bertsolari* mentioned above, Joxe Lizaso, won the 1986 championship. Sebastian Lizaso combined his powerful voice with an incredible gift for expressing himself in *bertsos*, as well as an almost proverbial ability (among *bertsolaris*) to find the right argument at the right moment and come up with brilliant responses to his opponent's statements. One should add to this his innate ability to catch onto something and make use of resources and strategies employed by other *bertsolaris*. He has been and still is one of the most requested *bertsolaris* by both the public in general and organisers of specific events. Lizaso's *bertsolaritza* is dialectic and direct, exploiting the most common oral resources to maximum effect. In order to develop his strategies, he does not need *bertsos* with many rhymes. Indeed, it is in these kinds of multiple-rhymed *bertsos* (which have so dominated in championships) where he struggled most, and for this reason he decided to give up competing in them. On the other hand, few of his fellow *bertsolaris* can match him when it comes to arguing and singing for hours in front of an audience.

As noted, Jon Lopategi, another of the key figures of modern *bertsolaritza*, won the 1989 championship.

The previous year, in 1988, a television programme called *Hitzetik Hartzera* began broadcasting. It would come to be one of the main factors in a subsequent boom in *bertsolaritza* during the early 1990s; although the main reason for this boom was the emergence of a new generation of *bertsolaris* during the late 1980s.

The group of *bertsolaris* which competed in the 1986 championship was a good reflection of this new generation. With the champion Sebastian Lizaso, alongside the veterans Lopategi, Amuriza and Enbeita, there were *bertsolaris* that had reached the elite to stay there (some of whom had already participated in the 1982 final): Anjel Mari Peñagarikano, Iñaki Murua, Jon Sarasua and Andoni Egaña, whom I will discuss below.

It was more or less the same story in the 1989 final. Alongside the champion Jon Lopategi, there were repeat appearances for Jon Enbeita, Andoni Egaña and Sebastian Lizaso. Mikel Mendizabal also took part and the youngest *bertsolari* in that final, Xabier Euzkitze, burst onto the scene. As a curious aside, one should point out that the line-up in that final was completed by two *bertsolaris* that have been presidents of the Association of the Friends of *Bertsolaritza* for two long consecutive stages. One of them was Iñaki Murua, who headed the association between 2005 and 2018. The other was Imanol Lazkano, president of the association since its foundation. Lazkano was, as well as a renowned *bertsolari*, the first president of the Association of the Friends of *Bertsolaritza*, a position he occupied for nearly



21

21. Andoni Egaña kantuan Bertso Egunean, Olalde aretoan. Mungia, 2018.

guztietako ospakizun edo bazkal-afalondoko saioetarako. Horietako bat, Gregorio Larrañaga *Mañukorta*, boom garai horretako izar handietako bat izan, batetik bere bertsogintza erraz eta xelebreagatik eta bestetik, pertsonaiaren beraren nortasun publikoagatik.

URRUNTZE BERTSOLARITZA: ANDONI EGAÑA

Andoni Egaña bertsolari atipiko eta autodidakta da, bertsolari formazioari dagokionez, behintzat. Euskal filologian lizentziatua da, eta Gasteizko Udaleko funtzionario izan zen, baina 1993an utzi egin zuen lanpostu hura, erabat sorkuntzara dedikatzeko. Idatzitako bertsoa ere landu du bai paper euskarrian, bai eta beste euskarri batzuetan ere. Nobelagilea eta euskarazko komunikabide gehienetako kolaboratzailea, bertsolaritza ulertzeko era berri baten aitzindaria da.

Egaña bere belaunaldiko estilorako ekarpen handia egin badu ere, belaunaldi horren definizio oso bat eman ahal izateko, aipatu beharra dago, gutxienez, Jon Sarasua, Sebastian Lizaso, Xabier Euzkitze eta Anjel Mari Peñagarikano, baita Mikel Mendizabal, Iñaki Murua, Millan Telleria edo Jokin Sorozabal ere, besteak beste. Dena dela, argi utzi beharra dago bertsolari belaunaldien arteko bereizketa hori, izan zurruna edo ez, baliabide metodologiko bat baizik ez dela. Hain zuzen, belaunaldien arteko bizikidetzaren bertsolaritzaren beraren ezaugarri bereizgarrietako bat da, eta orain bertan aztertzen dihardugun aldi hau ez da salbuespen. Hala, 1990eko hamarkadako bertso-saioetan Egañaren belaunaldiko

21. Andoni Egaña singing at Bertso Day in the Olalde Hall. Mungia (Biscay), 2018.

two decades (1987-2005), becoming, thanks to his tireless work as a bridge between generations, a key figure in articulating the *bertsolaritza* movement and its renovation. This was the situation at this time, then, yet in contrast to previous championships, by the time of the 1993 event, *bertsolaris* had become well-known public figures in Basque culture. Children asked for their autographs in the street, they were regular guests on television and radio programmes, and *bertsolaritza* was represented in all kinds of social activities. This was all part of the already mentioned *bertsolaritza* boom and it culminated with the crowning of Egaña as *bertsolari* champion in 1993. Four consecutive championships (1993, 1997, 2001 and 2005) had the same winner: Andoni Egaña, a record that made him the most successful *bertsolari* in the whole history of *bertsolaritza*.

Yet as I have noted, *bertsolaritza* is much more than just championships, although in a description as brief as this it is somewhat necessary to simplify matters. In this sense, there are *bertsolaris* that, although not so much at ease in championships (or they simply do not take part), enjoy great popularity amongst the enthusiasts and they are called on frequently in different festivals and post-prandial performances. One of them, Gregorio Larrañaga *Mañukorta*, was clearly one of the great stars of the boom era, in part thanks to his simple humorous *bertsos*, and in part thanks to the figure's very own public persona.

THE 'BERTSOLARITZA' OF DISTANCING: ANDONI EGAÑA

Andoni Egaña is an atypical and self-taught *bertsolari*, at least as far as his *bertsolaritza* training is concerned. He has a degree in Basque Philology and was a civil servant in the town hall of Vitoria-Gasteiz until he left this position in 1993 to concentrate full-time on his creative activities. He has also composed written *bertsos*, both on paper and in other formats. A novelist and habitual collaborator in almost all the Basque media, he is the linchpin today of a new way of understanding the art of *bertsolaritza*.

Although Egaña is clearly the main point of reference of his generation, it would be impossible to comprehend that generation without taking into account the contribution of many other *bertsolaris*. Amongst them, first and foremost would be Jon Sarasua, Sebastian Lizaso, Xabier Euzkitze and Angel Mari Peñagarikano, but the list also includes Mikel Mendizabal, Iñaki Murua, Millan Telleria and Jokin Sorozabal. Moreover, it should be made clear that the somewhat sharp distinction between the different generations of *bertsolaris* is merely a methodological recourse for an explanation. In fact, the active coexistence between generations is a distinct and specific feature of *bertsolaritza*, and the era under consideration here was no exception. As a result, in the different performances of the 1990s the *bertsolaris* just cited as representatives of Egaña's generation appeared together with more veteran *bertsolaris* like Amuriza, Lopategi, Enbeita, Lazkano, Agirre, Lazkao Txiki, and so on.

If one had to mention just some of the characteristics of this *bertsolaritza* which underpinned the boom of the early 1990s, they would be the following: the distancing of the topics dealt with and the ingenuity and planning involved in the improvisational strategies and resources.

This first characteristic, distancing, was to a great extent the result of a growing division with the audience itself. Egaña himself describes this in the following way:

bertsolariekin batera beste bertsolari zaharrago batzuek ere parte hartu zuten, hala nola Amuriza, Lopategi, Enbeita, Lazkano, Agirre eta Lazkao Txiki, besteren artean.

Boom edo gorakada hori gertatzea ahalbidetu zuen bertsolaritza motaren adierazgarri bakar batzuk gogorarazi beharko bagenu, honako hauek aipatuko genituzke: urruntzea lantzen dituzten gaiei dagokienez, zorrotasuna eta estrategien zein inprobisazio baliabideen planifikazioa. Lehenbiziko ezaugarria, urruntzea, hein handi batean entzuleriaren irizpide zatikatu edo dibergenteari zor zaio. Egañak berak honela azaltzen du: «Basarrik eta Uztapidek behin baino gehiagotan komentatu izan dute zeinen amorragarria gertatzen zen, Francoren garaian, esan nahi zena esaterik ez izate hura. Ez zen izango batere atsegina. Baina askoz ere mingarriagoa da oraingo egoera: zalantza bat hemen, xehetasun bat han, hemen hitz baten esanahia, han esan nahi genukeen zerbait... Nolako zoriona bestea Madrilgo harresiaz haraindi zegoenean, edo entzuleen artean infiltraturiko polizia sekretu bat zenean! Eta nolako larridura orain, beste hori hementxe bertan dagoenean, beste hori gu geu garenean»²⁵.

Entzuleria zatitu baten aurrean, balio partekatutako aipatze hutsarekin emozioak eragiteko aukera nabarmenki murrizten da. Batzuentzat pozgarria dena beste batzuentzat mingarria da. Gauzak horrela, urruntzea metodo bihurtzen da, baina metodo horrek beste gaitasun osagarri bat exijitzen du: zorrotasuna. Bertsolariari, gai konprometigarri edo korapilatsuenaren aurrean ere, *ateraldia* aurkitzea ahalbidetuko diona.

Urruntzea eta zorrotasuna ezinbesteko ditu bertsolariak, gaur egun publikoaren aurrean zenbait gairi buruz jarduteak suposatzen duen segadatik airoso irteteko. Bestalde, Uztapideren garaian, bertsolariak errepika zezakeen bertso bera edo ia bera, bizpahiru plazatan. Gaur egun, bertso-saioak irratiz edo telebistaz ematen dira, bat-bateko bertsoen antologiak argitaratzen dira, eta Interneten kontu ezin ahala dira bertso-jardunaldi buruzko bideoak. Eta horri guztiari jardunaldi kopurua gehitzen badiogu, aise ulertzen da nolako sorkuntza-erritmoa eta orijinaltasun-maila eskatzen zaizkion gaur eliteko bertsolariari.

Gaur proposatzen dizkieten gaiek —gero eta sofistikuagoak eta ez hain arketipikoak—, bertsolariari, Euskal Herriko ez ezik, munduko gorabeherez jakitun egotea exijitzen diote, lehen gertatzen ez zena. Eskakizun horien aurrean, Andoni Egaña bere belaunaldiko beste inork baino hobeto jakin du bat-bateko bertsoak bertsolaritzaren historian sekula ezagutu ez zen mailara igotzen.

Bestalde, ez da ahaztu behar euskarak gero eta hiztun gehiago dituela eta erabilpen eremuak ere gero eta zabalagoak direla. Hizkuntzaren normalizazio prozesua aurrera doan heinean, bertsolariak (idazleak ere bai) lehen ez zeuzkan hainbat baliabide dauzka. Euskaran ezarri diren lexiko eta erregistro espezializatuek, esate baterako, bide ematen du berauek gogora ekartzeko eta parodiatzeko ere bai.

Estrategia eta baliabideen berariazko erabilpenari dagokionez, mota guztietako bertsoetan sumatzen bada ere, bost errimatik gorakoetan igartzen da hori beste inon baino nabarmenago. Errima askotako bertsoetan, dio Egaña, jakin beharra dago non komeni den metafora sartzea, non harridura esaldiak eta non mugatu argudioak azaltzera.

Horren adibide ona da Egaña, Aretxabaletan, 1994an, Luis Ocaña ziklistaren heriotzaren, ustezko suizidioaren, gainean bota zuen bat-bateko bertso hau:

“Basarri and Uztapide said on more than one occasion how depressing it was during the Franco era not being able to say what you wanted. It must have been terrible. But what’s going on nowadays is worse still: a doubt here, a detail there, here it’s the meaning, there the yearning to say something! How much better it must have been when the ‘others’ were on the other side of the Madrid wall, or the secret police had infiltrated the audience! And what a shame it is now that the ‘others’ are right here, that these ‘others’ are none other than ourselves”.²⁵

Nowadays, the possibility of stirring up common feelings when the audience one is facing is itself divided is much more complicated. What pleases some people will almost certainly make others feel uncomfortable. In the light of this, distancing became a method, but a method requiring another complimentary quality: ingenuity – the ability of *bertsolaris* to work things out, find an *ateraldia* (literally a “way out” or an effective response) for any topic, however compromising or complicated.

Only distancing and ingenuity allow *bertsolaris* to emerge victorious from the battlefield which certain topics have become when facing the public. Moreover, in Uztapide’s time, a *bertsolari* could more or less repeat the same *bertso* in two or three different town squares without anyone being any the wiser. Today, however, bertsolaritza performances are broadcast on both radio and television, anthologies of improvised *bertsos* are published and videos of different events are readily available on the Internet. If we add to this the increasing number of performances in general, we have some idea of the pace of creative change and degree of originality demanded nowadays of the top *bertsolaris*.

The topics proposed today are increasingly more sophisticated and less archetypal, and they invariably demand of *bertsolaris* a profound understanding of both the Basque Country and the rest of the world which they were not previously required to know. Faced with such demands, Andoni Egaña heads a generation which has been able to elevate improvised *bertsos* to previously unknown heights in the history of bertsolaritza.

Meanwhile, one should not forget that Euskara continues to gain new speakers and new areas of use. As the language normalisation process advances, so *bertsolaris* (like writers) have at their disposal resources they previously lacked. For example, the growing social use of specialised lexicons and registers in Euskara enables *bertsolaris* to both use and parody these new forms.

As regards the conscious use of strategies and resources, they show up in all kinds of *bertsos*, yet they are most apparent in stanzas of more than five rhymes. In multiple rhymed *bertsos*, contends Egaña, it is vital to know where best to use metaphor, where best to use exclamation and where best to just stick to presenting one’s arguments.

A good example of this is a *bertso* Egaña improvised in Aretxabaleta (Gipuzkoa) in 1994 about the death (and presumed suicide) of the cyclist Luis Ocaña:

*We are our own puppets,
when not marionettes in the hands of others,
even those who thought ourselves vessels,
become thimbles.*

21. Unai Iturriaga
eta Andoni Egaña
buruz buru 2005eko
Bertsolari Txapelketa
Nagusiko finalean. BEC,
Barakaldo.

*Geure buruen txontxongillo ta
sarri besteren titere,
ustez antuxun ginanak ere
bihurtzen gara titare;
Luis Ocaña hor joana zaigu
isilik bezin suabe:
pistola bat parez pare,
zigilurik jarri gabe
ez lore ta ez aldare;
baina inortxo ez asaldatu
egin zazute mesede,
askatasunak mugarik ez du
heriotz orduan ere.*

Ikusten dugunez, lehenbiziko bi errimak aprobetxatuz, Egañak, aipamen metaforikoen bidez, gizakiaren erabateko hauskortasuna iradokitzen du. Bertsoaren hasieran sortu duen giroaren gainean, Egañak gero elipsi eta metonimiaz beteriko deskribapen bat egiten du, gaia entzutean burura etorri zaion aurreneko argudioarekin bertsoa errematatze azkenean.

Ezinezko litzateke lan honetan Andoni Egañaren inguruan aglutinatu dugun bertsolaritza honen baliabide guztiak zehaztea; horregatik, adibide bakar batzuk ematera mugatuko gara.

Lehenbiziko txapela irabazi zuen finalean, Egañak aita baten papera egin behar zuen, gaixotasunak jota bere seme bakarra, oraindik umea, galdu berria duen aita batena. Hildako haurraren amak bere fede sendoan aurkituko du kontsolamendua (Jon Enbeitak jokatu zuen amaren rola), aitak (Egañak), ordea, mota guztietako zalantzak ditu. Hona hemen Egañaren jardunaldiko hirugarren eta azken bertsoa:

*Sinimentsu dago ama,
haurra lurpean etzana;
nola arraio kendu digute
hain haurtxo otzana?
Hossana eta hossana,
hainbat alditan esana!
Damu bat daukat: garai batean
fededun izana!*

Bertsolaritza bera ere ez da libratuko zenbait gogoeta ironikotatik, hamarkada bat lehenago pentsaezinak ziratekeen gogoetak. Hona hemen Sarasuak eta Egañak Arantzan, 1992an, afari batean bat-batean moldaturiko bi bertso. Gau berandua zen eta Egañak bertsoan jarraitzeko egokiera defendatzen zuen, harik eta entzuleek amaitzeko agindua ematen zuten arte. Sarasuak, ordea, lehenbailehen amaitu nahi zuen saioa. Aurrena, Sarasuaren bertsoa, eta jarraian Egañaren erantzuna:

*Honek jarraitu egin nahi luke
ene, hau da martingala!
Aitortzen dizut azken-aurreko
nere bertsoa dedala.
Ta honek berriz eman nahi luke
oraindik joku zabala,*



22. Unai Iturriaga
and Andoni Egaña
in the head-to-head
final at the 2005
National *Bertsolari*
Championship Final.
BEC, Barakaldo
(Biscay).

*Luis Ocaña has left us,
discretely, without saying a word:
opposite him, just a pistol
with the safety-catch off;
not a single flower, not a single altar;
but don't anyone be shocked
do me this favour,
freedom allows no limits
even at the hour of death.*

As we can see, making use of the first two rhymes, Egaña suggests the extreme fragility of human beings by means of metaphorical allusion. making use of the atmosphere at the start of the *bertso*, he then goes on to provide a description full of ellipsis and metonymy before concluding the *bertso* with an argument that, in reality, was what first sprung to his mind after hearing the topic.

It would be impossible here to detail all the resources of this *bertsolaritza* which I have centred on the figure of Andoni Egaña. I will therefore restrict myself to just a few examples.

When he first won the championship in 1993, Egaña had to represent the role of a father who had just lost his only child to an illness at a very young age. In contrast to the reaction of the deceased child's mother (a role portrayed in the session by Jon Enbeita), who found consolation in her unswerving religious faith, the father (Egaña) was riddled with all kinds of doubt. Here is Andoni Egaña's third and final *bertso*:

*The mother persists in her faith,
the child lies buried below;
why the hell did you take
our innocent child?
How often I have cried
"Hossana, Hossana!"
I do now indeed
regret having once been a believer!*

*hau begiratzuz gaur erizten dut
lehen beldur nintzen bezala,
bertsolaria ta prostituta
antzerakoak dirala.*

*Sarasuaren aldetik dator
ez dakit zenbat atake,
errez salduko naizela eta
hor ari zaigu jo ta ke;
lantegi honek berekin dauka
hainbat izerdi ta neke,
bertsolariek ta prostitutek
sufritzen dakite fuerte,
baina gustora dauden unean
gozatu egiten dute.*

23. Joxe Agirre
Maialen Lujanbiori
txapela jartzen 2009ko
Bertsolari Txapelketa
Nagusiko finalean. BEC,
Barakaldo.

BERTSOLARITZA MULTIPOLARRA: AZKEN BELAUNALDIAK

2009ko Txapelketa Nagusiko irabazle Maialen Lujanbio koroatu izana har daiteke duela hainbat urtetatik hona bazetorrela ikusten zen belaunaldi txandaketaren burutze gisa. Egañaren ondorengo belaunaldiko goimailako bertsolarietako batzuk, Maialen Lujanbiorekin berarekin hasita, honako hauek dira: Unai Iturriaga, Igor Elortza, Jesus Mari Irazu, Jon Maia, Aitor Mendiluze, Iratxe Ibarra, Arkaitz Estiballes, Onintza Enbeita, Etxahun Lekue, Xabier Silbeira, Estitxu Arozena, Oihane Perea, Fredi Paia, Jon Martin, Nerea Elustondo...



23. Joxe Agirre placing the txapela on Maialen Lujanbio at the 2009 National Bertsolari Championship Final. BEC, Barakaldo.

Bertsolaritza itself is quite capable of ironic considerations that would have been unthinkable just a few decades ago. Here are two *bertsos* improvised by Sarasua and Egaña at a dinner in Arantzeta (Navarre) in 1992. It was already the early hours of the morning, and Egaña was defending the need to continue until those listening gave the order to stop, while Sarasua was trying to end the session as soon as possible. Sarasua sang first, and then Egaña in response:

*This one wants to go on
my, what a to-do here!
I swear this is
my penultimate bertso.
Even though my companion
wants to carry on dragging out the bertso,
when I see his attitude it confirms
what I suspected:
that the bertsolari is much like
a prostitute.*

*You see that Sarasua
doesn't stop attacking me,
maybe he thinks that I am
easily bribed.
In this profession of ours
there is sweat and tears;
and bertsolaris and prostitutes
know what suffering is,
but we both have moments
of great satisfaction.*

MULTI-POLAR 'BERTSOLARITZA': THE LATEST GENERATIONS

The crowning of Maialen Lujanbio as winner of the 2009 national championship might well be understood as the culmination of a generational change that had been coming for many years. Some of the major figures of the generation immediately following that of Egaña include, as well as Lujanbio herself, Unai Iturriaga, Igor Elortza, Jesus Mari Irazu, Jon Maia, Aitor Mendiluze, Iratxe Igarra, Arkaitz Estiballes, Onintza Enbeita, Etxahun Lekue, Xabier Silbeira, Estitxu Arozena, Oihane Perea, Fredi Paia, Jon Martin, Nerea Elustondo, and so on.

Ametz Arzallus won the 2013 championship and in that of 2017, Maialen Lujanbio achieved her second *txapela*. Lujanbio and Arzallus are without doubt the outstanding figures of multi-polar *bertsolaritza* in the early twenty-first century. Meanwhile, some *bertsolaris* of their generation have already stepped down from taking part in championships, although they continue to be active *bertsolaris*. Furthermore, a new generation of *bertsolaris* is being incorporated into the elite, and standing out both in championships and in other formats. Besides Maialen Lujanbio and Amets Arzallus, the other standout *bertsolaris* are Sustrai Colina, Beñat Gaztelumendi, Xabier Paya, Julio Soto, Agin Laburu, Miren Artetxe, Alaia Martin and others born in the 1990s, such as Miren Amuriza, Jone Uribe, Oihana Iguaran, Ane Labaka and Nerea Ibarzabal.

The list could easily be longer, and perhaps someone could say that as it is, it is already too long. The fact is, however, that the abundance of excellent

2013ko txapelketa Amets Arzallusek irabazi zuen eta 2017an Maialen Lujanbiok bere bigarren txapela lortu zuen. Lujanbio eta Arzallus dira, zalantza gabe, bertsolaritza multipolar honetako XXI. mende hasierako izar nagusiak. Bien bitartean, belaunaldi horretako bertsolarietako batzuek uko egin diote jadanik txapelketetan parte hartzeari, bertsolari gisa jardunean jarraitzen duten arren. Bestalde, bertsolari belaunaldi berri bat ari da goren mailako taldea osatzen, txapelketetan ez ezik beste formatu batzuetan ere gailenduz. Maialen Lujanbio eta Amets Arzallusekin batera, aipatzekoak dira: Sustrai Colina, Beñat Gaztelumendi, Xabier Paya, Julio Soto, Agin Laburu, Miren Artetxe, Alaia Martin, bai eta XX. mendeko azken hamarraldian jaiotako bertsolari batzuk ere, esate baterako, Miren Amuriza, Jone Uria, Oihana Iguaran, Ane Labaka eta Nerea Ibarzabal.

Zerrenda oso erraz luza daiteke, eta agian norbaitek pentsatuko zuen dagoen bezala ere luzeegia dela. Gertatzen dena da, halere, bertsolari bikainen ugaritasun hau guztiz datu esanguratsua dela. Besteak beste, adierazten du sortzailea (gure kasuan inprobisatzailea) jaiotzen delako mitoa zeharo gezurtatua geratzen dela, zeren argi baitago hainbeste bertsolari on egotea, batez ere, bertsolari-eskolei zor zaiela. Ez da berezko dohaina, landu daitekeen zerbait baizik. Edonola ere ukaezina da ez dela gure historian sekula izan hain maila altuko hainbeste bertsolari.

Belaunaldi gazteenak bere artea garatzeko aurkitu duen testuinguru soziala ere, funtsean, Andoni Egañak deskribatu duen berbera da: publiko zatitu eta kontrajarria, sendotasunez partekaturiko baliorik eza... Oraindik ikusteko dago gaurko egoera honetan zer eragin izango duen 2018an ETA desagertu izanak, hainbat urte igaro ondoren bere borroka armatua utzi zuenetik (2011n iragarritako jarduera uztea).

Aztertzen dihardugun azken bi aldietako ordezkari gisa aipatu ditugun bertsolarietan erreparatze hutsarekin ohartzen gara bertsolaritzaren gorenean emakumeen presentzia, zorionez, gero eta gauza ohikoagoa dela, asko falta bada ere benetako parekotasun batera iristeko. Dena dela, aitortu beharra daukagu goren-gorenean egoteko gaitasuna zuten emakume bertsolari guztiek ez dutela aukerarik izan horretarako. Hauxe izan daiteke abagune egokia, bide batez baizik ez bada ere, bertsolaritzan emakumeen partaidetzari dagokionez, aitzindari izan ziren bi emakumeren meritua aitortzeko: Arantzazu Loidi (1967-) eta Kristina Mardaras (1948-).

Guk, izendapen hoberik ezean, *multipolarra* deitu diogun bertsolaritzaren aldi horretara itzuliz, begi bistakoa da oso gutxi direla publikoak eta bertsolariek partekatzen dituzten erreferentzia kulturalak. Eta hori bertsolaritza ulertzeko daukaten eran nabaritzen da. Hala, Amuriza eta Egañaren baitan erreferentzia nagusiak, ahozko tradiziotik aparte, literarioak diren bezalaxe, erreferentzien aniztasuna nabarmena da epigrafe honetan aipatu ditugun bertsolarien artean. Unai Iturriagak, adibidez, oso estilo definitu eta berezia lortu du, komikien munduko elementuak, kaleko euskara mordoiloak, eta bertsolaritzaren munduan orain arte ia sekula erabili ez diren beste hainbat erreferentzia konbinatzen dituen.

Baliteke bakoitzak bere erregistroaren bilaketa izatea bertsolari belaunaldi berrien ezaugarri garrantzitsuenetako bat. Beste ezaugarri bat, zalantza gabe, bertsogintza inprobisatuko teknika baliatzen duten maisutasun harrigarria da. Azkenik, kontuan edukitzekoa da aipatu ditugun bertsolari gazte gehienak gailentzen direla bertsolaritzarekin zerikusirik ez daukaten kulturako beste hainbat arlotan, bereziki, literaturan, kazetaritzan, musikan edo zinean. Horixe da Maialen Lujanbioren eta Amets Arzallusen kasua, baita Beñat Gaztelumendi eta Miren Amurizarena ere,

bertsolaris is a very telling fact. It indicates, amongst other things, that the myth of the born creator (in this case, the improviser) has been debunked, because it is clear that the proliferation of good *bertsolaris* is due, above all, to the work of the *bertsolaritza* schools. It is not a skill one is born with, but instead something that can be cultivated. In any event, it is clear that there has never before in history been so many good *bertsolaris*.

The social context in which the youngest generation of *bertsolaris* have had to develop their art is, essentially, similar to that described by Andoni Egaña: a divided and conflicting public that lacks shared values. It remains to be seen to what extent the disappearance of ETA in 2018, several years after it ceased its armed activity (ceasefire announced in 2011) will influence this state of affairs.

One only need review the range of *bertsolaris* cited as representatives of the last two eras under consideration in order to verify that the presence of women *bertsolaris* is, fortunately, an increasingly less unusual reality, although there remains much to be done to reach full parity. Even so, it is fair to acknowledge that not all the women *bertsolaris* that have had the ability to become part of the elite have managed to do so. This may be a good moment to recognise, even in passing, the merit of two women who were pioneers of the inclusion of women in *bertsolaritza*: Arantzazu Loidi (1967-) and Kristina Mardaras (1948-).

Returning to that period of *bertsolaritza* that, for lack of a better term, I have called “multi-polar”, it is evident that there are not many strongly shared cultural references between the public and the *bertsolaris*, and this is evident in both their style and the way they understand *bertsolaritza*. Thus, besides oral tradition, Amuriza and Egaña’s main references are literary, and such diversity is also obvious amongst the *bertsolaris* I will discuss in this section. Unai Iturriaga, for example, has developed a very specific and distinctive style in which he combines elements from the world of comic books, urban slang and other references which have until now been practically unheard of in *bertsolaritza*.

The search for one’s own register can be considered one of the most important features of the new generations of *bertsolaris*. Another characteristic is, without any doubt, the amazing mastery of improvised *bertso* technique. Lastly, one should mention that most of the young *bertsolaris* just cited stand out in other fields of culture outside improvised *bertsolaritza*, especially in literature, journalism, music and film. That is the case of Maialen Lujanbio and of Amets Arzallus, but also of Beñat Gaztelumendi and of Miren Amuriza, to cite two of the most important figures. Worthy of mention is the case of Uxue Alberdi, who, as well as being a *bertsolari*, is a prestigious writer of renown (Euskadi Prize for Children’s Literature in 2016 and for Essay in 2020).

While there are more *bertsolaris* that deserve a more detailed stylistic study, the lack of space forces me to consider only the *bertsolaritza* approach of Maialen Lujanbio, and even that will only be a mere approximation. One should first make it clear that it would not be accurate to pigeonhole Lujanbio in a specific style of *bertsolaritza*, because during her career she has tried, almost always successfully, more than one. Whatever the case, beyond the different approaches that she has developed, what stands out is her ability to observe and explore in detail feelings and experiences. Whatever her approach, Lujanbio’s *bertsolaritza* borders on the literary and she often achieves an expressiveness that reminds one of film. As an example, one only need look at the *bertso* she sang at the 2001 final. The topic, based on what was at the time a recent event, was the following: “A close friend died last week in the Himalayas. Today you received a postcard that he had sent you before his death”. This is her second *bertso*:

garrantzitsuenak bakarrik gogoraztearren. Aipatzekoa da Uxue Alberdiren kasua ere, bertsolaria izateaz gain, goi-mailako idazlea baita (Haur-Literaturako Euskadi sariaren irabazlea 2016an eta Entsegukoa, euskaraz, 2020an)

Estilo azterketa zehatzagoa merezi duten bertsolariak bat baino gehiago diren arren, guk hemen, espazio falta dela eta, Maialen Lujanbioren bertsogintza proposamenera mugatuko gara eta hor ere hurbilketa soil bat baizik ez dugu egingo. Argi utzi behar den aurreneko gauza da ez litzatekeela zuzena Lujanbio bertsolaritzaren estilo jakin batean sailkatzea, bere ibilbidean, bat baino gehiago jorratu dituelako eta ia beti arrakastaz. Dena dela, garatu dituen ikuspegi desberdinen ginetik, sentimenduak eta bizipenak behatzeko eta zehaztasunez aztertzeke daukan gaitasuna gailentzen da. Edozein dela ere Lujanbioren proposamena, haren bertsogintza literaturaren muga kokatzen da eta sarritan lortzen duen plastikotasunak zinearena gogorazten du. Horren adibide gisa, horra 2001eko finalean kantatu zuen bertso bat. Gaia, orduan gertatu berria zen istripu batean oinarritua, hauxe zen: «Zure lagun min bat, joan den astean hil zen Himalaian. Gaur jaso duzu berak lehenago bidalia zizun postala». Hau de saio hartako bigarren bertsoa:

*Negar egin nahi dut baina
ez egitea hobe da,
malkoak jausiko dira
bestela postal gainera,
ta korritu ta borratu
hemengo muxu ta zera...
Intzirika hasi nahi baina
nihoa aguantatzera.
Imajinatu dezaket
kanpo-base hartan bera...
Bere ilusio ta amets
guzia jua da gainbehera,
ikurrinarekin jua nahi
zazpi milako batera,
ta orain Makulun dago
heriotzaren bandera.*

Oinarri horretatik abiatu, ezin hobeki menperatzen zuen estilo batean finkatuz urrun, Maialen Lujanbiok etengabe jarraitu du bide eta estrategia berriak probatzen. Gai honek analisi zehatzago bat eskatuko luke, eta ez da hau leku egokia horretarako. Lujanbiok orain arte probatu dituen inprobisazio-estrategiek ez dute behin ere aurrekoa baztertzen. Alderantziz, esan liteke etengabeko eboluzio bat dagoela eta fase bakoitzak aurreko lorpenak barne hartzen eta hobetzen dituela.

Adibide asko ekar genitzake gaur egungo bertso inprobisatuaren izugarriko kalitatearen lekuko. Horren erakusgai, Maialen Lujanbiok, Irunen, 2017ko txapelketako final aurrekoan bota zituen bertso batzuk. Proposaturiko gaia hauxe zen: «Dena ondo zebilen, argia joan zen arte». Hona abestu zituen hiru bertsoak:

*Trago bat eta beste trago bat
Gure kaletan barrena
Ta piztea da alkoholak eta
Sexu grinak dakarrena*

*I'd like to cry, but
I'd better not,
otherwise my tears might
smudge the kisses,
and caresses on the
postcard...
I'd like to burst into tears,
but I know I must contain myself.
I can imagine the base camp
and my best friend there...
His hopes and dreams,
have all come crashing down.
He wanted to plant the ikurriña
at the seven-thousand-metre summit,
and now only the flag of his death
flies on Mount Makalu.*

From that base, far from getting comfortable in a style that she mastered perfectly, Maialen Lujanbio has not ceased to try out new directions and strategies. The matter would require much more detailed analysis, and this is not the appropriate place to do so. The improvisation strategies that Lujanbio has tried to date are not alien to one another. On the contrary, one could say that there is continuous evolution, and that each phase includes, with improvements, the discoveries of the previous ones.

There are many examples that one could put forward in order to testify to the tremendous quality of current improvised *bertsos*. It is sufficient, as a sample, to cite the transcription of those that Maialen Lujanbio improvised in Irun (Gipuzkoa) during the semi-final of the 2017 championship. The topic proposed was the following: "Everything was going well, until the light was turned out". Here are the three *bertsos* she sang:

*One drink and another drink,
roaming our streets,
and it's what the mix has
of alcohol and sexual desire;
to your house, or to mine,
after the usual nonsense,
we went into your bedroom,
and this is what happened:
the light was off,
I took all my clothes off,
and then, suddenly,
a small light was turned on.
You look at my waist,
I'm not what you thought I was. (x2)*

*Until I covered myself up, there were
many laughs, many jokes,
we passed between our mouths
the gin and tonic ice cubes;
My breasts were perky,
you cupped them;
In spite of my tight trousers,*

Zure etxera nere etxera
 Betiko gauzak aurrena
 Zure logelan sartu garata
 Ara hemen ondorena
 Argia zegon itzalita ta
 Bertan biluztu naiz dena
 Ta bapatean piztu egin da
 Argi txiki xumeena
 Nere gerrira begira zaude
 Ez naiz uste zenuena. (x2)

Estali arte izan dugunak
 Nahiko irri nahiko broma
 Ahorik aho pasa dugunak
 Gin tonic barruko horma
 Bular pareta zut neukan eta
 Zuk eman didazu forma
 Galtza hestuak nebilzkin arren
 Ez takoi ezta ez gona
 Hau ta hura naiz
 Hartzen ari naiz
 Zenbait botika hormona
 Gizona eta Andrea nauzu
 Ez Andrea ez gizona
 Nere inon ez egon nahia ote
 Da zure ezin egona. (x2)

Gizarte honen estereotipo
 Ta gizarte honen usteen
 Tranpan zu ari zara erortzen
 Eta hori ez dizut uzten
 Zuk badakizu nola zizelka
 Eta marraztu gaituzten
 Ze inporta du gaur ari banaiz
 Zure aurrean biluzten
 Eta neroni ni neu naizen
 Hori bakarrik gorpuzten
 Nere gerripe zintzilikako
 Desira ari da puzten
 Itzali zazu argia eta
 Utzi azalari ikusten (x2)

24. Alaia Martin
 kantuan, eskuineko
 aldean Ane Labaka.
 Udako programako
 bertso-saioa. Tolosa,
 2020.

Amaitzeko, pare bat ohar. Lehenengo eta behin, esan beharra dago, txapelketetan eta lehiaketa formaletan garatzen den bertsolaritza motarekin batera, badela beste bertsolaritza apalago bat, eta, printzipioz behintzat, hemen analizatu ditugunen testu kalitaterik exijitzen ez badu ere, gainerako guztiaren ezinbesteko oinarria dena, festa giroko bat-bateko bertsolaritza da, izaera dialektiko formalekoa eta, normalean, arrandia formaletatik ihes egiten duena. Berrito esango dugu, amaitzeko, bertsolari belaunaldi berriek argi eta garbi erakusten dutela aurreko belaunaldiei dieten mirespena. Adiskidetasunezko dialogoa eta bizikidetzat dago belaunaldi desberdinetako bertsolarien artean, sormenaren gainerako arloetan nekez sumatzen dena.

*I don't wear heels or skirts,
 I am this and I am this other,
 I'm taking
 some hormones,
 I'm a man and I'm a woman,
 I am neither woman nor man...
 I don't want to be here or there, perhaps
 That's what makes you uncomfortable. (x2)*

*The prejudices and stereotypes
 of this society are
 imposing their law on you,
 and you can't allow that.
 You know full well how they have carved us,
 How they have marked us;
 It's of little importance if today I'm
 undressing in front of you,
 trying just to be
 what in reality I am...
 Hanging between my legs,
 the desire swells;
 switch off the light, and
 let the skin be the one to see. (x2)*

24. Alaia Martin
 singing, on the right-
 hand Ane Labaka.
 Summer programme
 bertso session. Tolosa
 (Gipuzkoa), 2020.

In order to conclude, a couple of observations. First, it should be noted that, alongside the type of *bertsolaritza* undertaken in championships, there is *bertsolaritza* at the ground level, which does not demand, at least in principle, the textual quality of the examples analysed here, and that, however, is the indispensable base of all the rest. It is a kind of more ludic improvised *bertso*, of a distinctly dialectic nature, which, in general, usually avoids formal ostentations. I would reiterate, finally, that the new generations of *bertsolaris* openly acknowledge their admiration for the older generations. There is a fluid dialogue and a coexistence between *bertsolaris* of different generations which is rarely seen in other creative fields.



Bertsolaritza informazioaren gizartean

25. Maialen Lujanbio kantuan Amets Arzallus begira duela, 2009ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalean. BEC, Barakaldo.


Gabrielle Simonek²⁶ dioen bezala, telematikaren eta komunikabide berrien bat egitearekin aro berri bat sortu da XX. mendeko azken urteetan, eta beronen ezaugarri nagusietako bat informazioa lortzeko eta trukatzeko moduetan gertatu den aldaketa sakonean datza.

XX. mendeko teknologiek (telefonoa, zinema, irratia, telebista) ahozkotasanaren uste ez bezalako gorakada eragin bazuten, badirudi XXI. mendekoak ahozkoaren eta idatzizkoaren arteko aldea ezabatzen ari direla. Komunikologo²⁷ batzuek adierazi dute, adibidez, txat eta e-posta zerbitzuak erabiltzean, oraingoz hizkuntza idatziaren mekanika baliatzen badugu ere, medio horietako mezuei eraginkorrak izateko komeni zaien barne egitura hurbilago dagoela ahozko hizkuntzatik idatzitik baino.

Baina, bestalde, asko dira hizkuntzaren pobretze prozesu azkarraz ohartarazten gaituzten ahotsak. Pobretze hau, gure ustez, ez da teknologia berriek berekin dakarten ezinbesteko ondorioa, gaikuntza erretoriko-diskurtsibo gabezia nabarmen bati zor zaiona baizik. Gazteenen gaitasun diskurtsiboaren gabezia erremediatzeko, hizketa-eskola gisa familia gunea hondatu izanari eskola-sistemaren gaitasun falta nabarmena gehitzen zaio.

